

Perpauk Kausalak «Manezaundi» ren Idazkietan

MARIAM ANTOÑANA ABALOS *

0. SARRERA

Lan honen helburua Enrike Zubiri «Manezaundi»-ren testuetan agertzen zaizkigun kausazko perpauken erabilera nolakoa den aztertzea izan da.

Alde batetik, Manezaundik baliatutako zenbait lokarri kausal berezi samarrak suertatzen dira eta, hortaz, berauen erabilpenaren zer- nolakoa argitu nahi izan dugu; gainera, orain arte eginiko azterketak soilik pasarte batzuei buruzkoak direnez gero, ez dira bertan idazle honek erabilitako kausazko mota guztiak azaltzen.

Bestetik, ez dago dudarik beharrezkoa dugula gure klasikoen prosa ahalik eta hobekien aztertzea, gaur egungo erabilpenak nolakoa behar duen erabaki ahal izateko. Villasantek honela dio kausazko lokarriei buruz:

«Uno de los puntos de la sintaxis vasca en que hay más necesidad de hacer luz es, sin duda, el de las oraciones causales. La práctica actual más común (nos referimos al lenguaje escrito de autores de los dialectos occidentales) tiende a construir estas oraciones, casi exclusivamente, a base del sufijo *-lako* y del prefijo *bait-*, sin más» ¹.

Lehendabizi, Manezaundik erabilitakoen sailkapena dakargu, zein den bakoitzaren erabilpen maiztasuna zehaztu ondoren. Gero, eta gehiegi ez luzatzearen, kausazko lokarri mota guztiez idazleak osatutako zenbait perpauk eskainiko ditugu, erakusgarri gisa, lokarri bakoitzari buruz gramatikariak emandako azalpenekin batera. Azkenik, beste testu batzuetako perpauk ere ekarriko ditugu hona, Cazenavek eta beste batzuek XIX. mendean hondarrean Bonaparterentzat behe-nafarreraz egindako itzulpenetatik hartutakoak, alegia, Manezaundirenekin nolabait erkatzeko asmoz.

* Euskal Hizkuntza eta Literatura irakaslea

1. VILLASANTE, L.: *Las oraciones causales en Axular* (I), FLV, 37. zk., Iruñea, 1981.

1. SAILKAPENA

1.1 Erabilera maiztasuna:

BAIT-: 81 aldiz; -LAKOTZ: 42 aldiz; ZEREN (ETA): 29; ZEREN ETA ... -LAKOTZ: 24; USTEZ (ETA) ... -LA: 16; ZEREN ETA ... BAIT-: 13; -ELARIK: 7;

-IK: 6; USTEZ (ETA) ... -N: 4; -NEZ-GEROZ: 4; -KI (ETA): 4; -NEZ: 3; USTEZ (ETA) ... -NETZ: 3; -EN BER: 3; ZEREN ETA ... -LARIK: 2; EZEN: 2; ZEREN ETA ... -LA: 2; EZEN ... BAIT-: 1; -NIK-GEROZ: 1; -LAKOAN: 1.

Maiztasunari begira, garrantzikoentzat ondokook jo ditzakegu:

Bait- (81), *-Lakotz* (42), *Zeren (eta)* (29), *Zeren eta...-lakotz* (24), *Ustez (eta) ... (-la)* (16), *Zeren eta ... bait-* (13).

1.2. Lokarri motak

Ondoren, eta Euskaltzaindiak kausazko lokailuei buruz esandakoa aintzat harturik, Manezaundik erabilitako kausazko partikulen sailkapena proposatzen dugu, idazle honen kausazkoen erabilpena Euskaltzaindiaren proposamena baieztatzerako datorela iruditzen zaigularik:

«4. *Kausazko lokailuen arazoa*.(...) b) Baina morfologiaren aldetik (*zeren* < *zer* + *en*; *zergatik* < *zer* + *gatik*), eta baita biltzen dituzten osagaien kategoriagatik ere (hauek perpausak bakarrik lot ditzaketela ematen du eta ez sintagmak ez eta beheragoko osagaiak), lokailutzat hartzeko eskubidea dugula dirudi.

Aditzak atzikia edo aurrizkia daramanean perpaus txertatua dugula esan dugu. *Zeren* lokailua dela onartzen bada, proposa genezake, lokailu hori beste bide batetik (aditzak duen atziki edo aurrizkiari esker) txertatua gertatzen den perpausari dagokion ñabardura -kausarena, alegia- ematera datorrela. Lokailuak sarritan juntagailuaren arrimura etortzen ziren bezala, *zeren* ere oraingoan menderagailuaren arrimura etorriko litzateke. Ez dugu proposatuko, hortaz, analisi bikoitza, hots: alde batetik *zeren* lokailua eta bestetik *zeren bait-* menderagailua. Aitzitik, *zeren* beti lokailu dela esan genezake: batzuetan menderakuntza indartzera edo datorrena; besteetan albo-rakuntza garbia izango dugu eta beste batzuetan bi perpaus lokabek (sintaktikoki lokabek) duten kausa-erlazioa agerian jartzea izango litzateke lokailuaren betebeharra»².

Bait- aurrizkia eta *-lako* atzikia idazle honek gehien erabiltzen dituen tarikoak dira (81 eta 42 aldiz), gorago ikusi bezala, eta jasotako perpausetan argi geratzen denez, balio bakarrez erabiltzen ditu Manezaundik biak, hau da, kausa adierazteko³.

2. (Euskaltzaindia. Gramatika Batzordea, *EGLU-IV (Juntagailuak)*, Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1994, 13-14.orri).

3. Kasuren batean *bait-*ek erlatibozko-baieztapenezkoa dela dirudi (Ikus 2.1.3.) *-lako*-k izenlagunarena ere egiten du batzuetan, baina kasu horretan izena jarraitzen zaio eta ez du, hortaz, kausarik adierazten.

MENDERAGAILUA (AURRIZKIA): <i>bait-</i>	LOKAILUA ... MENDERAGAILUA (AURRIZKIA) <i>zeren eta ... bait- ezen ... bait-</i>
MENDERAGAILUA (ATZIZKIA) <i>-lakotz -lakoan -larik -nez -nez-geroz -nik-geroz -n ber -ik -ki (eta)</i>	LOKAILUA ... MENDERAGAILUA (ATZIZKIA): <i>zeren eta ... -lako zeren eta ... -larik zeren eta ... -la</i>
	MODALIZAERA ... MENDERAGAILUA (ATZIZKIA): <i>ustez (eta) ... -la ustez (eta) ... -n ustez (eta) ... -netz</i>
	LOKAILUA: <i>zeren (eta) ezen</i>

Horregatik, *zeren (eta)* aurkezlarria *-lako-*rekin batera erabiltzea *bait-* aurrizkia baino lehen esatea eta idaztea bezain bidezkoa iruditzen zaiola iduri du. Aurrizkia nahiz atzizkia, sintaktikoki, menderagailuak dira eta, beraz, Euskaltzaindiak proposatutakoa, Manezaundiren kasuan, behinik behin, zuzena litzateke, hau da, *zeren (eta)* anaforikoa menderagailuaren laguntzera eta indartzera datorrela onetsi beharko genuke (Manezaundiri dagokionez, ikusi dugunez, *zeren eta...bait*, 13 aldiz erabiltzen du eta *zeren eta...-lakotz*, 24 aldiz) ⁴.

Dena den, egia da *zeren eta ... -lakotz* honen erabilpena harrigarri samarra suertatzen dela testuak irakurtzean, ez baitu honela ia inork erabiltzen. Zenbateraino zen Manezaundiren asmazioa edo erabilera okerra ikustearren, euskalki bereko azpi-euskalki ezberdinez idatzitako testuak ⁵ aztertzeari ekin

4. Bestelako kasuetan ere erabiltzen dira horrelako anaforikoak, adibidez, *halaz eta ... -naz geroztik*. Honela dio Villasantek: «_ *Halaz eta ... más -naz geroztik*. Forma redundante de la anterior, poco usada, pero que puede estar justificada en algún caso en que por lo largo o complicado del período o por otra razón interese adelantar el aviso de la causal», *La oración causal en vasco*, Editorial Francisca-
na Aranzazu, Oñate (Guipúzcoa), 1986, 263.

5. Testu hauek Nafarroako Artxibo Nagusiko «Bonaparte» hondoan gordetzen dira. Ikus GONZÁLEZ ECHEGARAY, Carlos: *Catálogo de las obras de lingüística de Luis-Luciano Bonaparte*, Madrid, 1979. Eta «Índice de los libros y papeles adquiridos por la Excm. Diputación de Navarra de la Testamentaría de S.A. El Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, vol. VII, pg. 186. Mikrofilmatuta ere badaude.

genion eta bertan, geroxeago ikusiko dugun bezala, erabilera hau berau ere aurkitu genuen, nahiz maiztasuna oso murrizta dela onartu behar dugun. Hirugarren atalean, «Behe-nafarrerazko zenbait testuren kausazko perpausak» izenburukoan, alegia, zehaztuko ditugu testuok zeintzu diren ⁶.

Kontutan izan behar dugu itzulpen horiek ahozko erabilpenaren islada emateko asmoz egin zirela ⁷. Hona hemen, sarrera gisa, Ustaritzeko mintzairaren itzultzaileak idatzi zuena ⁸:

«J'ai été chargé de mettre le catechisme d'Asteté en basque d'Ustaritz.

A Ustaritz, comme dans tout le pays basque, il y a la langue soignée ou exacte qu'on emploie en écrit ou dans un discours prononcé devant une assemblée, et la langue de la conversation, le basque qu'on parle en négligé, si on peut le dire. Dans le basque de conversation on syncope beaucoup, par ex. en disant *hail etcheat* pour *habil etcherat*. L'habitant le plus ignorant du pays, s'il devait écrire les mêmes mots, les écrirait de cette dernière manière. Dans la conversation il y a beaucoup de contractions, comme dans le Grec Antique.

Les noms en *oa*, se contractent en *ua*; ceux en *ea* se contractent en *ia*. Ex. *leihoa*, *leihua*, *etchea*, *etchia*. Dans ces mots contractés *oua* et *ia* se prononcent brièvement comme ne faisant qu'une seule syllabe. Si le mot finit naturellement en *u* ou en *i*, *u* et *i* feront des syllabes séparées, comme *barüa*, *begüia*.

Ces observations faites, je vais donc écrire le basque de la conversation, le basque négligé d'Ustaritz. Quoique j'écrive, je n'écrirai pas comme on écrit, mais comme on parle. C'est ainsi qu'on m'a prié de faire. (J'ai oublié de faire une petite remarque. C'est que pour certains mots, il n'y a pas uniformité dans la même population: les uns diront d'une manière, les autres d'une autre. Ainsi, l'un vous dira *bortz*, cinq; l'autre vous dira *bost*. L'un vous dira *bertze*, pour dire *autre*, un autre vous dira: *beste*. J'emploierai ce qui me paraît le plus usité. Parfois je pourrai dire dans des renvois: *on dit aussi*. Il ne faut pas oublié non plus que la langue d'une population se modifie peu à peu avec le

6. Azpieuskalkien sailkapena ondoko obran ezarritakoari jarraikiz egin dugu: YRIZAR, P.: «Los dialectos y variedades del vascuence» in *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, dos tomos, San Sebastián, 1981.

7. SAROÏHANDY, J.: «El vascuence en el "Collège de France"» in *RIEV 15*, 1924, 601-609: (...) Un notario de San Juan Pie de Puerto (nacido en 1777), Juan Salaberry d'Ibarrole publicó en 1856 la traducción del *Evangelio según San Mateo*, (...). *El Evangelio según San Mateo* fué publicado por el Príncipe L. Luciano Bonaparte que encontró sin duda que el texto no se acercaba bastante a la lengua hablada en el País de Cize. Pidió al presbítero J.B. Cazenave que ejecutara, para él, en este dialecto, un número bastante grande de otras traducciones: solamente la *Prophétie de Jonas* fué publicada en Londres en 1862. Las otras quedaron manuscritas y se encuentran actualmente en Pamplona, en los Archivos de Navarra. Gracias a la benevolencia de la *Diputación foral y provincial* y a la de su archivero D. Jesús Etayo, he podido traer a París el manuscrito de Cazenave que contiene el *Evangelio según San Mateo* del que hemos explicado y comentado un gran número de pasajes. Juan Bautista Cazenave nació en San Juan Pie de Puerto el 19 de abril de 1804 y fué cura párroco de Beyrie cerca de Saint-Palais en 1856. Allí murió el 11 de Junio de 1873. (...).

Cazenavek egindako itzulpenak 51, 52, 53, 54, 102 eta 125 eskuizkribuei dagozkienak dira. Honela dio Georges LACOMBEK Bonaparterentzat Cazenavek egin eta argitaratu zen «La prophétie de Jonas» itzulpenari buruz: «Autant que nous pouvons juger, l'ensemble de la traduction donne -tout au moins presque toujours- une photographie assez exacte du parler cizain», in «Le Prince Louis-Lucien Bonaparte et les dialectes bas-navarrais (1) V. La prophétie de Jonas en Cizain», *Le Journal de Saint-Palais*, 1920/2/1. Gure azterketa, 13. oharrean aipatu bezala, osatu gabeko 102 eskuizkribuan oinarritzen da.

8. 33. *Katixima, Ustaritzeko elheaz*. Mendebaldeko behe-nafarrerako Lapurdiko azpieuskalkia, Ustaritzeko barietateaz itzulia (YRIZAR, *op. cit.*, 215).

temps. Dans ces derniers temps sur tout (sic) beaucoup de Basnavarrais se sont répandus dans le Labourd, surtout dans les grandes communes, et ils y ont plus ou moins fait subir de l'altération au langage.)»⁹.

Pentsatzekoa da, beraz, nolabaiteko hedadura zutela behe-nafarreraz egindako itzulpenetan erabilitako lokailu nahiz menderagailu guztiek. *Zeren eta ...-lakotz* ekialdeko behe-nafarrerazko Garazi-Amikuzeko azpieuskalkiko zenbait testutan erabiltzen da, ikusiko dugunez. Kasu honetan, ezin jakin zenbateraino ez dagokion bakarrik erabilera idatziari, *zeren eta... bait* menderagai-luaren analogiaz sortua eta testu erlijiosoak dotoreagotu nahian erabilikoa.

Manezaundik, bestalde, honela idazten du:

«Ni mintzatzen niz lañoki ene herriko eta Garaziko elhean; eta idazten dutalaik, ahal bezanbat molde arthoski batekin, erdaraz deitzen den, *forma literaria* emaiteko» (KL, 201)¹⁰.

«Zonbat aldiz ez dut entzun Doniane Garazin eskuara galdua zela, eta frantsesa bezik etzela mintzatzen. Eta hori ez da bathere egia. Ni haurra nintzalaik han bizi nizan sei edo zazpi urthe, eta orai berdintsu ordian bezala mintzatzen dira eskuaraz. Egari zor dugu hori aithortzea». (KL, 235).

Manezaundik, beraz, Luzaidekoa eta Donibane Garazikoa euskalki bereberekoak direnez gero, ez du aintzat hartzen Bonapartek egindako bereizketa, Luzaidekoa mendebaldeko behe-nafarrerako Baigorriko azpieuskalkitzat eta Donibane Garazikoa ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkitzat jotzen dituen, alegia¹¹; edota, hobeto esanda, agian ez zen jakitun ahozkoan horrelako bereizketa existitzen zenik ere.

Horregatik, apika, Lafittek Villasanteri esandako iritzia ez zetorkeela bat idazle behe-nafartarraren errealitatearekin ondorioztatu beharko genuke eta herri horietako hizkerak bai ezagutzen zituela, Bonapartek euskalkiei buruz egindako sailkapena ongi ez ezagutu arren: «Por ciertos detalles, y por lo que alguna vez oímos comentar a Lafitte, parece deducirse que Manezaundi no conoce suficientemente bien el dialecto en que escribe. Emplea anafóricos, pero luego no aparece *bait*- ni afijo alguno en el verbo; en lugar de *bait*- a veces aparece *-n* o aun *-lakotz*»¹².

Villasantek egindako azterketan, honelako ondorioak irakur ditzakegu:

«11.- Enrique Zubiri "Manezaundi" (...) Para el estudio de las causales hemos revisado esta compilación [Angel Irigaray (...) *Prosistas Navarros Contemporáneos en lengua vasca*, Pamplona, 1958], de la pg. 25 a la pg. 83 (...). *Resumen y Conclusiones*. Manezaundi, en las páginas examinadas por nosotros, construye de este modo las oraciones causales:

- 1.º con *bait*- solo
- 2.º con *-lakotz*
- 3.º con *zeren eta* más *-lakotz* (sic)»¹³.

9. Nafarroako Artxiboa, Bonaparte hondoak, 33. agiria, 1-3 orr.

10. Laburdurak eta ekarrirako perpausak ondoko bildumotako lanei dagozkie: *Enrike Zubiri «Manezaundi»*. *Artikuluak*, Edizioaren prestatzailea: Rosa Mirem PAGOLA, Klasikoak 41, Euskal Editoreen Elkarteak, Bilbo, 1990 (KL laburduraz). *Enrike Zubiri «Manezaundi»*. *Zenbait artikulu*, Prestatzailea: Mariam ANTOÑANA ABALOS, Fontes Linguae Vasconum, Nafar Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Departamendua, Iruñea, 1995 (maiatza-abuztua), 69 zk., 337-361 (FLV laburduraz).

11. YRIZAR, P., *op. cit.*, 97-220.

12. Villasantek, *Op. cit.*, 212.

13. VILLASANTE, Luis: *Op. cit.*, 212.

2. MANEZAUNDIREN KAUSAZKO PERPAUSAK

Atalka ikusiko dugu orain nola erabiltzen dituen Manezaundik kausazko lokailuak eta menderagailuak, egin dugun sailkapenaren arabera. Hirugarren sail batean, aipatutako Bonaparteren hondoko itzulpenetatik jasotako zenbait perpaus ere emanen ditugu.

2.1. Menderagailuak: aurrizkiak.

Bait- dugu Manezaundik erabiltzen duen aurrizkia, beti ere, kasu bakan bat salbu, kausazko zentzua ematen diolarik. Menderagailuen artean sailkatu dago. Maiztasunaren aldetik, berak erabiliena dela ikusi dugu. Hona zer dioen Villasantek Manezaundiren erabilpen honi buruz:

«El *bait-* solo lo emplea exclusivamente como causal, cuando la verdad es que entre los escritores bajonavarros este prefijo sirve para desempeñar múltiples funciones»¹⁴.

VILLASANTE: «3. *Prefijo verbal bai(t)-* (...) Parece que su papel es subordinante en general, quedando el sentido un poco en el aire y debiendo ser éste determinado por el contexto, etc. (...) Ese mismo carácter indiferenciado debió de ser la razón -entre otras- de que se sintiera la necesidad de asociar a este prefijo con varios anafóricos, con el fin de obtener así distintas clases de oraciones subordinadas perfectamente caracterizadas y diversificadas entre sí: *zeren* más *bait-* para las causales; *zein* más *bait-* para relativas no restrictivas; *noiz* más *bait-* para temporales, etc.»¹⁵.

Ikus dezagun, aitzitik, zer dioen Ustaritzeko mintzairaren itzultzaileak, bere ohar batean:

«Dohatsutasunac badira zortzi. 1. Dohatsu gogoz pobre direnac, zeen heiena baita zeruko erresuma. (...).

(On pourrait ici retrancher en basque le mot *zeren* ou *zeen*, dans toutes ces phrases sans changer le sens: Car *baitu*, *baitute*, renferment *zeren*: *parce que*)¹⁶.

Badirudi behe-nafarreraz gero eta maizago ematen zitzaiola *bait-* aurrizkiari kausazko zentzu soila, erlatibozko ez murriztaileak eta denborazkoak osatzeko anaforikoak ere erabiltzen zirelarik. Guk aztertutako itzulpenetan beti agertzen dira anaforikoak horrelako perpausai dagokienean¹⁷.

Ondoren, gure idazleak atzizki honen bidez sortutako zenbait perpaus ikusiko ditugu:

2.1.1. *Kausazko perpausa perpaus nagusiaren ondoren*¹⁸, *apodosian*:

14. VILLASANTE, *La oración causal en vasco*, 213 orr. Ikusi, gainera, VILLASANTE, Luis eta LASARTE, M.^a Pilar: «Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan», *Euskara*, XXV (2.aldia), 1980, 537-563.

15. *La oración causal en vasco*, 237.

16. Bonaparte hondo, 33. agiria, 44-45.

17. Adibidez: «Kredua (...) eta Jesu Khrichto haïn Seme bakhar gure Jauna baithan, *zoin* kontzebitu *baizen* Izpiritu Seindiaïn berthutez, (...). (51, Bonaparte, 2). Manezaundik *anaforikoa ... bait-* formula ere erabiltzen du erlatibozkoak egiteko. Salbuespen gisa, eta behin bakarrik, motibatiboan deklinaturiko *zerengatik* anaforikoaz ere baliatzen da erlatibozko perpausa egiteko, baina aditzean ez du ez atzizki ez aurrizkirik sartzen. Dena den, aditza lehenaldian izanda, baliteke *-n* atzizkia bertan egotea, baina, noski, ez dago egiaztatzerik: *Haragikeriak, arrainkeriak eta baratzeak, dena ihaurri gaineraino, eta marruma apha! bat igaiten zen handik, zerengatik ez nintzan ausartatu han sartzerat, harat-hunataka ez ibiltzeko itsas-untzi xume bat bezala ubinen artean.* (KL, 326). Eta *bait-* soilik erabilia erlatibozko-baieztapen balioarekin, behin bakarrean ere topatu dugu (ikus 2.1.3. ataleko adibidea).

18. Kasu bakan batzutan, txertatua den beste perpaus baten pean doa kausazkoa, 5 (*bait-*) eta 24 (*-lakotz*) perpausetan bezala. 5.ean, «gutaz bekhaztiak» sintagmaren azalpena da.

(1) *Hire azinda bethi ederrenetarik, zaintzen baitituk artoski, eta hain xekatiak izanikan yinen zauzkik ahurrerat erosliak.* (KL, 28)

(2) *Hain errekesta haundia ikhustean, nahi izan zien yastatu Mañexek ere, eta zerra bat ezpainetarar hurbiltzean hain zukretua izanikan ere, utzi zuen, halako gustu bitxi bat kausitzen baitzakon.* (KL, 49)

(3) *Nik egin nuen behin haren iduria (hori da nere lanpidea, irakurleak), goxoa baitzitzaitan eta ene neurri xumearen heinean ohoratzeko oroitzapen horrekin gure gizon haundia.* (KL, 103)

(4) *Zertako da eskualduna hain lehiatsu bere sortherriaz? Lehenikan gizon bihotz duna delakotz, eta gero Eskual-herria bezalako toki ederrik nekez mundian khausitzen ahal ditenetarik baita.* (KL, 231)

(5) *Espainarrek, aldiz, gutaz bekhaztiak hek ezpaitzuten garhaitu ahal Karloman ahalsua, asmatu zuten ixtorio pollit bat, zointan erraiten daukute Bernardo el Carpio ezpataren bothereak eta bere gudulariek abarrikatu zituzte-la frankoak.* (KL, 301)

(6) *Ile moxte egunian bazkari on bat emaiten dazkote langileer, auzoko la-guntzaileak baitira.* (KL, 335).

(7) *Behia alhan zelaik gozian patar gain hartan, lerratu eta herrestaka eta itzulika pentzeari behiti peko sasiraino yuan ziauk, eta ez dakiat lepho hezurra ez dienez hautsi, buria arras nekez doidoia higitzen baitu.* (FLV, 350)

2.1.2. Kausazko perpausa nagusiaren aurrean, protasian. Kasu honetan, “-nez gero” menderagailuaren adierakidea dirudi:

(8) *Bethidanik ezkontzaren etsaia izanikan ere, zonbait aldiz igurikatzen ez dena gerthatzen baita, horra nun gure donado burukoia berrogoi urthetan debru nexkato pollit batek bihotza guritzen dakon.* (KL, 44)

(9) - Ori, Benat, beransko baita orai etxeraino yuaiteko, nahi duzia hemen bazkal dezagun? (KL, 335).

(10) *Noizbait akhitu behar baitzen, azkenian amor egin du, eta eztiturik, agertu da iruzki dirdiranta eta goxoki berotzen gitu.* (KL, 412)

(11) *Eskualdunak arrotz menpean bizi izan gira orai artio, bainan uzkur-tasunaren garhaitzeko eta ilhunbetatik atheratzeko ez baita eskolatzea bezalakorik, azkenian hortarat yarraiki gira.* (FLV, 353)

(12) *Arnoak elhausturia phiztu zakon kalaka haundian, eta mozkorrak ez baitira ahapetik mintzo, barnia deplauki erakusten baitute deusere gorde gabe, horra nun gure gaizo turko izuna hasten den eskuara garbian mintzatzan denak harriturik, salbu Erramun.* (FLV,355)

2.1.3. Erlatibozkoa-baieztapenezkoa datekeen perpausa:

(13) *Badu berrogoitabost urthe agertua dela, ez baita atzo, eta adin hortaraino heldu izan bada, beren zuzendari eta idazle argitu eta khartsueri esker du bere bizi luze eta osagarri hunezkoa.* (KL, 266)

2.2. Menderagailuak: atzizkiak

Manezaundiren testuetan kausazko zentzua har dezaketan atzizkiak honakook ditugu: -lakotz (-lako), -lakoan, -larik, -nez, -nez-geroz, -nik-geroz, -n ber, -ik, -ki (eta).

2.2.1. -Lakotz (-lako)

Berez, ez badarama izenik bere ondoren, hots, ez bada izenlagun funtzio-ko perpauseko aditza, zentzu bakarra dauka, kausazkoa, alegia. Ikus dezagun zer dioten gramatikariek atzizki honi buruz:

AZKUE: «Tiene cuatro acepciones este sufijo, sin contar la que tiene como derivativo adjetival en vocablos como *nolako*, *orrelako*... etcétera (178):

1.^a Es causal y significa “porque”».(...).

3.^a En AN, G y L se valen de él como sinónimo de *lakoan*. *Jango zuelako joan nintzan* me fui en la creencia de que había de comer.¹⁹

VILLASANTE: «Y efectivamente, en cuanto al origen del sufijo *-lako* parece claro que éste es resultado de la superposición de *-ko* a *-la*, y su significado originario es asimismo el que corresponde a los dos dichos sufijos, o sea, “de que”. El paso para que sirviera para expresar la causalidad era fácil, y lo que extraña es que no se diera antes. También en castellano la causal se expresó primero con “de que” y sólo más tarde prevaleció el “porque”. Como más abajo veremos, el anafórico *zeren*, de uso tan universal para expresar la causa, en su origen no es otra cosa que un “de que”. (...)

-lako, sobre todo en Hegoalde, es hoy muy usual. Es la forma típica de construir la causal subordinada, con la que se expresa la causa real o determinante. Siendo así que la construcción *zeren* más *bait* tiene idéntica función y valor, ¿habrá que concluir que una de las dos está de sobra? En modo alguno. En oraciones cortas y de factura simple *-lako* está en su sitio y parece preferible. Pero en los períodos largos o complicados puede interesar colocar en el comienzo de la frase la partícula que anuncia la causal y que tal vez se halla relativamente distante del verbo que lleva *bait*-. Con *-lako*, en cambio, no se usa anafórico alguno que lo anuncie»²⁰.

GOENAGA, Patxi: Nolabait esateko, *-elako*-k kausa-kausa adieraziko luke. *Bait*-ek gehiago dirudi zerbaiten esplikazioa. Hau, noski, neure gaitasunari dagokionez. Izan ere, zenbait euskalkitan gure *-elako* horren ordaina dela dirudi *bait*»²¹.

AGIRRE BEREZIBAR, Jesus Maria: «G. -LAKO PREDIKATIBOA

Lau segida mota aztertuko dira jarraian: izenlagun arrunta, balio anaforikoduna, balio estimatiboduna eta balio kausala. (...)

Laugarren. -LAKO marka balio kausalez erabil daiteke, argudiaketako ideien jarraieraren arabera. Askotan, ondorioaren aurretik azal daiteke. (...)

Predikazioaren adierazketa ondoren ere azaltzen da, haren kausa edo zioa emanik»²².

2.2.1.1. Apodosian daudenak:

(14) *Aita-semek gerthakari latzgarrienetarik daukate beren semearen etxetik urruntzea, ez bakharrik haren besoak beharrenezkoak direlaketz etxeko funtsen lantzeko eta arthatzeko, bainan izigarri zaiotelaketz soldado yuaitea, ustez eta gudaratz doala.* (KL, 36)

(15) *Hain dute higuigarri eginbide horren bethetzea, nun Kaliforniarat gogotiago nahi dute yuan, han bederen gudu hirriskurik ez delaketz eta gero es-*

19. AZKUE, R. M.^a: *Morfología vasca, Euskera*, 1923, Berrargitalpena, Sendoa S.A., Donostia, 1982, 361 orr.

20. *La oración causal en vasco*, 241-242.

21. *Gramatika bideetan*, Erein 3. argitalpena, Donostia, 1985, 271.

22. *Euskal gramatika deskriptiboa*, 2. atala, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1991, 1011-1012.

kualdunen artean direlakotz, zeren eta denek dakigun bezala oste haundika bil-duak baitira eremu heietan, artzaingorat yuana. (KL, 36)

(16) Gure elhea mendietako ur-xirripa kotsu gabeko ithurrietan edan dugu, bathere yausti gabe ur-haundi edo ibaietarat, hok ardurenik garbitasuna galtzen ditutelakotz heien ganat doatzin zikhinkeriaz nahastekaturik. (KL, 105)

(17) Euzkadi Buru Batzarraren buruzagi izendatu daukute Jesús Doxan-dabaratz, gure adixkide maitea. Hautu hobeagokorik ez dezakete egin, zeren eta abertzale sutsuenetarik baita, adimendu argikoa, eta bere khar biziaren heine-koa Eskualherrian nekez kausi ditakeen gizonik delakotz. (KL, 139).

(18) Gurek Iruñeko Arrotxapeako hauzun bildu ziren, eta han egon ilha-bethe bat, inahalak eginik iriaz yabetzeko, bainan etzuten ardietsi, barneko etsaiek kanoi eta gudu tresna ausarki baitzituzten, eta gero, harrisu edo «mura-llekin» untsa gerizatuak zirelakotz. (KL, 159)

(19) Damuz, erregebidetik ez da ageri, mendixka batek kukutzen duelakotz. (KL, 198)

(20) Eskuara gutiesten du (hori erran gabe doa) iduri zaiolakotz yende arrunta eta eskola gabekoen hizkuntza dela, eta sekula ez da mintzatzen, behar-rrak ez balinbadu bortzatzen. (KL, 229.orr.)

(21) Zertako da eskualduna hain lehiatsu bere sortherriaz? Lehenikan gizon bihotz duna delakotz, eta gero Eskual-herria bezalako toki ederrik nekhez mundian khausitzen ahal ditenetarik baita. (KL, 231)

(22) Eskualdun berri guziek behar luteke urthe baxhotx egon aldi bat egin herri eskualdun huts bathian, zeren eta liburuetan ikhasten dena ezta aski gure mintzaiaren zoko mokho guzien zagutzeko, eta guziz hi-ka edo toka mintzatzeko, hortan baita gure elhearen gatz eta edertasun guzia, eta gero aintzez bertzelakoa edo desberdina delakotz. (KL, 388)

(23) Oihanak! oihan zahar miresgarriak, maite ditzagun heien arthian direlakotz behialako Eskual Herriaren lekhukotasun bizi bakharrak. (FLV, 358)

2.2.1.2. Protasian daudenak:

(24) Bainan etzazuela uste Benabarra Frantziari elgartu zelakotz bere lege-ak galdu zituela. (KL, 155)

(25) Anarthean Espainiarrek ekharri zuten Logroño'tik harmada haundi bat, bainan ezin ihardokiz oste gaitz hari, eta gero «lansquenet»-ak ere ihes yuaiten wzirelakotz, azkenian gathaska odolztatu baten ondotik, gureak borthitzki garhaituak yuan ziren Baztan'go alderat. (KL, 159)

(26) Nik aithortu behar dut deplauki oraiko gipuzkoar hizkuntza doi-doi-a erdizka ulertzen dutala. Bainan lehengoa, XVIII garren mendekoa, handizki idurikoa delakotz egungo nafarrakoari aski errexki ulertzen dut. (FLV, 350) ²³.

2.2.2. -larik

VILLASANTE:

«-larik. También las formaciones con -larik tienen a veces un valor entre temporal y causal. Lafitte (Grammaire, n.º 883) trae el ejemplo: *Hain ona de-larik, nola ez maita?* (“puesto que es tan bueno, ¿cómo no amarle?”)» ²⁴.

23. Mendibururen euskaraz ari da, idazle honek gipuzkeraz idatzi zuelakoan. Mendiburuk, ordea, goi-nafarreraz idatzi zuen.

24. *La oración causal* ..., 264.

Manezaundik, gehienetan, denborazko zentzua ematen dio, baina badira kasu batzuk, denbora eta kausazkoen artekotzat jo daitezkeenak. (27) per-pausean, esaterako, zuzenki erantzuten dio «zertako» galderari.

2.2.2.1. Apodosian:

(27) *Eta, zertako hori? O! hiruzpalau entzularik erdaldun elizan badirelarik.* (KL, 262)

(28) *Anitz yendek uste dute hitzkuntza bat aberatsa dela hitz anitz dituelarik.* (KL, 293)

2.2.2.2. Protasian:

(29) *Eta gero, deputadu izendatzen dituztelarik hantzen dira aphotzarrak bezala, eta begi bazterretik soiten heien herrunkakoak ez direneri. Pitzunak!* (KL, 373)

2.2.3. -lakoan

AZKUE: «539. Cuando a *lako* en la segunda acepción [Significa “de que” cuando le sigue un nombre o pronombre] le sigue como pronombre el artículo *a*, la palabra cuyas veces hace suele ser *uste* idea, creencia, siendo *-lako* (B) la creencia de que y *-lakoan* (AN,B,G,L) en la creencia de que». (...) ²⁵.

VILLASANTE: «También *-lakoan* aparece en estos dialectos [los orientales] con valor causal, pero, como muy bien observa Txillardegui (*Euskal Gramatika*, 36.22) cuando se emplea este giro se quiere enunciar un matiz subjetivo: *ama zelakoan* “porque él, subjetivamente, había pensado que era la madre”. *Eta* 4. atalean, “Indicaciones orientadoras sobre el modelo a adoptar para la lengua común”, 263. orrialdean: “También parece digna de mantenerse o restaurarse la construcción a base de *-lakoan* para la expresión del matiz de causa supuesta u opinada” ²⁶.

(30) *1512'an galdegin zakon gure Juan II erregeari bere baimena Naparroan barna utsteko haren gudularien iragaitea, Frantzian sarthu eta hango erregeari behar zuelakoan gudukatu.* (KL, 157)

2.2.4. -nez

VILLASANTE : «La construcción a base de *-nez* es fronteriza entre modal y causal. Pertenece a la tradición occidental» ²⁷.

(31) *Ba eta gero, zertako ez aipha ere aphezek zein guti axolarik duten eskuararen ganik, beren elizako predikutan erdarari lothurik herri arras eskualdunetan, guhaurek ikhusi dugunez asko aldiz?* (KL, 262)

(32) *Primo de Ribera, Espainiako yabea sei urthe luzez españolien ahoak tinki atxikarazi ondoan, bera nausi zenez, juan zaikigu etxerat, bere gogoz edo hura baino goitiago den norbaitek manatuz.* (KL, 401)

2.2.5. -nez-geroz

VILLASANTE: «*-naz gero(z)* o *-naz geroztik*. Construcción fronteriza entre temporal y causal» ²⁸.

25. Azkue, *op. cit.*, 361.

26. *La oración causal...*, 242.

27. *La oración causal ...*, 264.

28. *Op. cit.*, 263.

(33) *Horra gizonek zer sarraskiak egiten dituzten gaixo usuekin, gehienetan bathere oldoztu edo gogoratu gabe zer itsuskeri garratzak deramaten xori doha-kabeekin, pairamenetan edo oinhazetan gure heinekoak eta berdinak direnez geroz.* (KL, 189)

(34) *Eremu zelai eta idorretan, ura dutenezkioz, zerukoa ala ur-bidekoak, lurak aberatsagoak eta gizenagoak dira, bainan begienganako edertasunak ukho egiten du.* (KL, 195)

2.2.6. -nik-geroz

Gramatketan ez da aipatzen. Manezaundiren baitan *-nez-geroz* mendera-gailuaren aldakia da eta, hortaz, bere balioa denborazko-kausazkoaren artekoa dela esan dezakegu. Morfologikoki, «aditz laguntzailea + -n + partitiboa + posposizioa» dugu. Kasu honetan, aditz jokatuan agertzen zaigu partitiboa (*-nez geroz* erabiltzen denean, jakina denez, instrumentala erabiltzen da). Partizipio hutsarekin erabiltzen direnean, bai instrumentalak bai partitiboak, modua edo bidea adierazten dute: «4.3.3.2. *Partitiboarekin* [partizipioa]. Oso maiztasun handiarekin agertzen zaizkigu, gehienetan aurrekotasuna eta modu edo bidea adierazten digutela: (38) *a. Ele horiek entzunik, etxera itzuli nintzen*» (...). «4.3.3.3. *Instrumentalarekin*. Instrumentala partizipioari erantsiz, modua edo bidea adierazten duten perpausak molda ditzakegu, ondoko adibideotan ikusten den legez: (41) *a. lan eginez ikasi egiten da*»²⁹.

Balio honetatik dator, agian, aditz jokatuarekin batera partitiboa erabiltzearen zergatia. Ez da oso arrotza suertatzen, beraz, bata nahiz bestea aditz jokatuan ere erabiltzea, «geroz» posposizioarekin kausazko perpausa sortzen delarik. Badago beste kasu bat, baina jokagabea da perpausa eta balioa baldintzazko eta kausazkoaren artekoa: *Basa-gizonak adimendua ilhunbetan izanik-geroz ez da ohartzen ahal eta erdeinu egiten du bere inguruko edertasunez.* (KL, 214). Partitiboa bestelako lokarrietan ere gehitzen da: LAFITTE: 149.- «(...) g) Dans *nahizik-eta*, afin de, le médiatif *nahiz* a été mis au partitif»³⁰. Eta: «c) le complétif, surtout sous la forme partitive, sert à introduire *tandis que, quand, lorsque*»³¹.

(35) *Gainekoak, berexiak, erakasleak, bide zehiar eta makhurretan bada-biltzanik-geroz ez da harritzeko entzutea hainbeste eta hainbeste arinkeri nola aditzen ditugun, ez nornahiri, bainan plantako yaun batzueri, hangoen ezagutza doi bat yakiteaz bortxatuak direneri, gure ustean.* (KL, 219)

2.2.7. -n ber

LAFITTE, Pierre: «1.º Circonstanciennes causales (...). c) le conjonctif avec *ber*, pour traduire *puisque, du moment que*. Ex. zurekin den ber, puisqu'il est avec vous;»³².

VILLASANTE: «-n ber. La construcción a base de *-n ber* es un giro suletino y bajo-navarro de valor entre temporal y causal. Su sentido es “desde el momento que”. También parece digno de tenerse en cuenta, o sea, de ser adoptado»³³.

(36) *Bainan damuz, arrotzari estekatuak girenen ber ez gira higitzen ahal gure xedeak helbururat helarazteko.* (KL, 150)

29. EUSKALTZAINDIA: *EGLU -II*, Bilbo, 1987, 90-92.

30. *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, édition revue et corrigée, Elkar, Donostia/Baiona, 1995, 63.

31. Op. cit., 458.

32. Op. cit., 452.

33. Op. cit., 264.

(37) *Hotz ikharak nagitzen eta uzkurtzen gitu. Hots: supazter bero bat ez dugun ber deusetako ez gira hun.* (KL, 191)

2.2.8. -ik

Berez, partizipioarekin erabiltzen da, aurrekotasuna eta modu edo bidea adierazteko (ikus 2.2.6. atala). Zenbaitetan, moduzko eta kausazkoaren arteko zentzua duela dirudi. Lafittek, bere gramatikan, ondoko adibidea ematen du: «e) le partitif du participe. Ex. *bertzek galdeginik kantatu dut, j'ai chanté parce que les autres me l'ont demandé* (litt.: *les autres me l'ayant demandé*)»³⁴.

(38) *Hire azinda bethi ederrenetarik, zaintzen baitituk artoski, eta hain xekatiak izanikan yinen zauzkik ahurren erosiak.* (KL, 28)

(39) *Bere anaia ere harekin zen, hobendunen arthean, bainan osagarri xarrean eta sukharrekin izanik, Boryelek ezagutu zien izagarriko zigorrada haren ondotik etzela bizirik atherako gaixo anaia.* (KL, 124)

2.2.9. -ki (eta)

Lafitte: «1.º Circonstanciellles causales (...) h) les adverbos participes. Ex. *elhurra izaki-eta, parce qu'il neigeait*»³⁵. Kausa eta moduaren arteko esanahia dute. Iñigo, Salaberri eta Zubiri hizkuntzalariek ere honela diote: «Perpauzak hartzen duen balioa ez da, eskuarki, berez -ki aditz-atzizkiak ematen diona, juntagailuak ematen diona baizik. -Ki-dun formak egiten duena perpausa hanpatzea baizik ez da; jakina, aipatutako partizipioari juntagailuren bat eransten bazaio honek ematen dion balioa hartzen du. Orduan, dagokion juntagailuaren arabera, balio adbertsatiboa, esplikatiboa, kausal-esplikatiboa, e.a., hartuko du. Juntagailurik gabe ere -ki-dun forma duen perpauzak balio horiek har ditzake: (...)»³⁶. Manezaundiren testuetan badago *izaki* bat hone-lakorik adierazten ez duena³⁷.

(40) *-Errak, Manex, zion emazteak, donadua izanki eta hi anai bakharra, legearen araberean hire eskutarat yinen zaizkik haren ontasun guziak.* (KL, 76)

(41) *Nafarroa arras ahuldua izanki, Espainearreri ihardokitzeko, gure erregeak hartu zituen bere meneko hogoi bat mila «lansquenet» horietarik gehienak Alemanak.* (KL, 158)

(42) *Eskual-herriak hedadura murrirtza izanki eta oraino gutisko ezagutzen balinbagira gure artean, zertako, bada hainbeste oihu, irrirtzina, xirula, dantzeta eta harrabots?* (KL, 220)

(43) *Hea ez denetz toki hauta gure aitzinekoek berexi zutena, yakinki eta etsaiek etzutela beste ihes-biderik Garazi alderat yausteko, Ibañetatik behera abiatuzkioz.* (KL, 300)

2.3. Lokailua ... Menderagailua (aurrizkia)

2.3.1. Zeren eta ... bait-

34. Op. cit., 453.

35. Op. cit., 453.

36. IÑIGO, Patxi, SALABERRI, Patxi eta ZUBIRI, Juan José: «-KI aditz-atzizkiaren gainean», *Fontes Linguae Vasconum*, 69 zenb., 1995.eko maiatza-abuztua, Nafar Gobernua, Hezkuntza eta Kultur Departamendua, Bianako Printzea Erakundea, Iruñea, 276.

37. «Baserritarrak eta herritarrak bere eskuetan izanez-geroz kaseta eskualduna, ez du batere erdeldun *izaki* beharrik munduko berriak eta lurgintzako gora-beherak yakiteko». (KL, 267)

VILLASANTE/LASARTE: «Jakina denez, Iparraldeko idazleetan *bait-*aurrizkia interrogatibo batekin erlazionatua egon ohi da gehienetan: *zein* (*zoin*), *nor*, *noiz*, *zeren*, *zer...*

Zeren, jatorriari bagagozkio, *zer* interrogatiboaren kasu posesiboa baizik ez da. Beraz, “de que” esan nahi du. (...) badakigu, gainera, euskal testurik zaharretan ere ageri dela *zeren* hau. Euskarak hori hartu baldin badu, horren beharra sumatu duelako izan da, eta orai kentzen bazaio pobretua eta behar dituen tresnez gabetua uzten dugu. (...) Gainera, *zeren* (edo *zerren*) hizkuntzaren hedadura guztian erabili da eta erabiltzen da: sortaldeko euskalkietan *bait-*aurrizkiarekin eta sartaldekoetan *-n* atzizkiarekin erlazionaturik. Beraz, hau izan da —*lako* atzizkiarekin batean- kausa erreala adierazteko modu nagusia -nahiz eta ez bakarria izan-. Perpaus aski luzeetan konstrukzio honek badi abantail bat nabaria: esaldiaren hasieran *zeren* hori jartzen duzu berri ekarle bezala. Orduan badakizu jadanik kausala dela esaldi hura: gero aditzean *bait-*aurrizkiak bururatzen edo borobiltzen du *zeren*-ek iragarri zuena. (...) Oker ez banaiz, gisa honetako kausalak Lapeyre-k beti esaldi printzipalaren ondotik jartzen ditu, behin ere ez aurretik»³⁸.

Manezaundik ere, beti apodosian jartzen ditu:

(44) *Hain dute higuigarri eginbide horren bethetzea, nun Kaliforniarat gogotgiago nahi dute yuan, han bederen gudu hirriskurik ez delakotz eta gero eskualdunen artean direlakotz, zeren eta denek dakigun bezala oste haundika bilduak baitira eremu heietan, artzaingorat yuanak.* (KL, 36)

(45) *Ez dira segurki anitz oroitzen direnak ene herrian «Zimun kauterraz». Hiruetan hogoi urthetakoak goiti baditake, bainan adin gazteagokoak ez dut us-te, zeren eta gure haur denboran hila baitzen.* (KL, 79).

(46) *Eskualduna zen, zeren eta denbora hartan ez baitzen, zorionez, oraino sartua erdara lekhu horietan.* (KL, 101)

(47) *Gure ohidurak, mintzaira eta legeak nahi ditugu errepiztu, bainan oraiko bizi moldearen heinerat zuzenduak, aitzineko gauza onak ahantzi eta baztertu gabe, zeren eta hek baitira eskualdunaren manua, bere izaitearen errokoak, ezin kenduak gure menetik, gure baitatik, lokharri azkarrenekin lothuak.* (KL, 132)

(48) *Zer egin zuen ordian Fernando el católico heien erregeak?*

Aita Sainduaren mezu izun batekin mehatxatuz yakinarazi zuen Nafartarreri Elizatik ohilduak edo iraziak izain zirela, zeren eta gure erregeak adixkide adostuak baitziren Frantziako erregeekin, eta hok Aita Sainduaren etsaiak izanez geroz, herrunka edo lerro berean ezartzen zuztela. (KL, 143-144)

(49) *Nik nahi nuke erosi zenbaki edo número hori, eta, hala balin bada othoizten dizut igor nezazun, hemen pagatzeko a reembolso, edo zuk errain daazun moldean haren prezioa igortzeko aitzinetik, zeren eta ez baitakit zonbat balio duen bakhotxak.* (FLV, 359)

2.3.2. Ezen ... *bait-*

Aurrekoaren bariantea da.

(50) *Nafarroentzat ohore haundia, ezen gutarra baitzen, Benabarrekoa, Ehiaralarren sortua.* (KL, 272)

38. VILLASANTE/LASARTE, *op. cit.*, 550-551.

2.4. Lokailua ... Menderagailua (atzizkia)

2.4.1. Zeren eta ... -lakotz

AREJITA, A.: «7. ZE - ZEREN - ZERREN - ZERGAIK ZE - ZEREN ETA - BA (DA)

- Honeik guztiok AURRIZKIAK dira: esaldi menperatuaren sarreran ipinten dira.

- Euskerak jatorriz bereak ez ditu aurrizkiok (zergaitziko esaldietan behinik behin), baina idazterakoan zein berba egiterakoan erreztasuna billatzeagaitik, erromantze erderen moldera egin ditu euskerak aurrizkiok. (...)

Aurrizkiok, batzuetan bakarrik, baiña beste batzuetan atzizki ezaugarriekin alkartuta erabiltzen dira arrazoi-emote esaldietan. (...)

b. ZE, ZEREN -LAKO, -ETA

«ZEREN ETA handia deLAKO» (Gandiaga, H.G.B., 91)

«ZEREN ETA txikiari arrazoirik ematea arriskuduna deLAKO» (Idem.)

«ZEREN ETA handiagandik beti ere hondakin goxoren bat edo espero genezakeeLAKO.» (Idem.)³⁹.

Dakigunez, hau da honelako elkarketa (*zeren ... -lako*) aipatzen duen gramatikalarik bakarra. Agirre Berezibarrek, berriz, ez du haren berririk ematen. Villasantek, aldiz, okertzat jotzen du (ikus *-lakotz* atzizkiaz adierazitakoa (2.2.1.)). Luis M^a Mujikak ere ez ditu honelakoak euskal esaldi jatortzat hartzen, eta erlatibozkoak bezala, kutsu neolatinoz edo, larrienetakoak direla dio; «Zergatik-eta gaiso zegoelako, etzen garaiz heldu» adibidea ematen du, euskal esaldi jatorrean halako interferentzia arrotza suertatzen dela adieraziz⁴⁰.

Manezaundik apodosian erabiltzen du.

(51) *Nik ez dut errain alarguntsa guziak doi bat arinak izan behar direla bigarren ezkontza egiteko zeren eta gehienak beharrez eta ezinbertzez bere haurren edo etxaldearentzat gizon baten landeria, zuhurtzia eta itzala bilhatzen dutelakotz.* (KL, 82).

(52) *Arras gogotik mintzatzen niz gizon huntaz zeren eta ahantxu ene herritarra delakotz.* (KL, 104)

(53) *Nere herrikoa zen, Luzaide-koa, bainan gu Espainiari eratzikiak edo lothuak izanikan ere, Benabartarrak, Garazikoak gira, muga egileen gainetik... Eta horra zergatik «Manezaundi» izengoitiarekin idazten dituen lerro hauk mintzatzen den hango eskuaraz, Napartarra izanikan ere... zeren eta gure eskuara, gure dantzak, gure obidura eta aztura guziak, ba eta odoleko lokharriak ere, mendiz bertze aldekoak direlakotz. Iphar aldekoak girelakotz.* (KL, 122).

(54) *Laborariak diote arras ona dela elhurra eta hotza bere denboran, lurgintzako mozkinak hobekitzen dituela, zeren eta bere etsai haundienak, mamutxa ñimiño kaltekor horiek denak funditzen dituelakotz.* (KL, 181)

(55) *Aurkhintza menditsuek eta euritsuek berekin deramate edertasuna, zeren eta hezea landare guzien hazkurria eta bizigailua delakotz; (...).* (KL, 195)

(56) *Ba eta ardura zaharo ukhaldika urrunduarazi behar, zeren eta moksak zaphatzen dituztelakotz mihaurien atheratzeko.* (KL, 207)

39. «Zergaitziko esaldiak (Arrazoi ematekoak)», *Euskal joskera*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 185-223.

40. *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*, Sendoa, Donostia, 1982.

(57) *Haren omena hedatzen ari da, zeren eta zelhai paregabeko hura gohoratasun hartan, sasoin beroaren phasatzeko eta osagarriarentzat lekhu hauta delakotz.* (KL, 210)

(58) *Eta, zertako ez erran? ni ere ahulkeria hortan eroria niz, bainan ez itsuki, ene ustez, zeren eta gauzak argi eta berme ditugulakotz gure ustekeriaren finkatzeko, hein batian bederen.* (KL, 288)

(59) *Eta lekhu horiek hautatu zituzten, zeren eta Espainia eta Frantziaren arthean diren mendietako lepho aphalenak eta egokienak direlakotz, Pirineos deithuenetan.* (KL, 302)

(60) *Espainiaren beretzeko, Orreagatik sartu zen. Bainan etzuen Luzaideko bidia artu, zeren eta erreka hertsu hura iragan eta Ibañetako lephorat igaiteko toki egokia zelakotz etsairentzat; gain behera mehargune hartan kenka xar baten beldurrez.* (KL, 303)

(61) *Oraikoan gobernu errepublikanoarekin denek uste dugu eskualdunek zerbait ardietsiko dugula gure lege zahar, ohidura eta mintzoaren alde, zeren eta gobernuko buruzagiek hori hitzeman dutelakotz.* (FLV, 347)

(62) *Emaiten dauku ere osagarria, zeren eta beren ostoan arartez aire kutsudunak garbitzen dituelakotz.* (FLV, 357)

2.4.2. Zeren eta ... -larik

(63) *Aniz bozkariotzen niz ipharraldeko eskualdun anai suharren xede ederrez, eta igurikatzen ahal dugu ondorio ederrak heien lanetarik, zeren eta kartsuki lehiatuko direlarik Eskualherriaren xutitzerat eta goresterat.* (KL, 138)

(64) (...); *eta oraino oroitzen gira nola ur-ixurkien usain gohaindigarria gure sudur zilotik sartzen zitzaizkigun; zeren eta karrika sahetsetan bazirelarik zilo batzu lurpeko erreka zikinataraino heltzen zirenak.* (KL, 323).

2.4.3. Zeren eta ... -la

Honela dio ALTUNAK: «Aski argi dago [zeren], ene ustez, horietarik zenbait pasartetan “elementu aurkezlaría” nahiz “erlaziotzaile soila” deritzana dela, zeren horren perpausa euskarazkoa gabe latinezkoa ere izan bait daiteke (...), edota -ela duen adizkiz osaturiko perpausa ere bai, esate baterako, “...zeren, hiri hartarik sortzen zeiztela...” (18)» 41.

(65) *Debeku hori nahi zuen, estakuru bat ukhaiteko hemen sartzeko, zeren eta Frantziako erregea Aita Sainduak elizatik kanpo ezarri zuenez-geroz, haren etsai edo aurka ez uzteak emaiten zakola Naparroaren menpetzeko zuzena...* (KL, 157-158)

(48) *perpausean ere badagoela iduri du, zeren eta lokailuak bait- daraman perpausa nahiz -la daukana iragarriko lituzkeelarik:*

Zer egin zuen ordian Fernando el católico heien erregeak?

Aita Sainduaren mezu izun batekin mehatxatuz jakinarazi zuen Nafar-tarreri Elizatik ohilduak edo iraziak izain zirela, zeren eta gure erregeak adixkide adostuak baitziren Frantziako erregeekin, eta hok Aita Sainduaren etsaiak izanez geroz, herrunka edo lerro berean ezartzen zuztela. (KL, 143-144)

41. ALTUNA, P.: «“Zeren” eta “nola” Etxeparengan», *Euskera* -XXV (2. aldia), Euskaltzaindia, 1980, 513.

2.5. Modalizaera ... Menderagailua (atzizkia)

2.5.1. Ustez (eta) ... -la

AZKUE: «539. Cuando a *lako* en la segunda acepción [Significa “de que” cuando le sigue un nombre o pronombre] le sigue como pronombre el artículo *a*, la palabra cuyas veces hace suele ser *uste* idea, creencia, siendo *-lako*a (B) la creencia de que y *-lako*an (AN,B,G,L) en la creencia de que. (...) Ahora, si ese concepto de creencia está reforzado con un adjetivo, ya no recurriremos al pronombre *a*, sino que expresamos su correspondiente vocablo *uste*. *Egongo zalako uste osoagaz* con la entera creencia de que había de estar (Ur. *Canc. de Mant.* III-78)». (...) ⁴².

Agirre Berezibarrek «modalizaerak» delako sailean sailkatzen du:

«USTEZ, USTETAN hitz positiboak erants dakioke esakune deklarati-
tiboak, batipat hegoaldeko arieran topa daitekeelarik».

«Noizpait jabetasun haiek oso bereak izanen ziren ustetan» (Joanak, 429)
(...)

Iparraldeko arieran, oster, USTEZ ETA esapide prepositiboak aurki dai-
teke esakune deklaratiiboak aurkezturik.

«- Goititzen du berriz ere bere mintzoa, ustez-eta xuberotarra inarrosiko
duen» ⁴³.

Nire ustez, menderagailu honek *-lako*an atzizkiaren antzeko erabilera
dauka, Manezaundiren testuetan ikusten den bezala, hau da, ustezko edo
iritzizko kausa adierazten du, eta, hortaz, *-lako*an bezain onargarria suerta
daiteke kausa mota hori adierazteko (ikus Villasantek honi buruz dioena, op.
cit., 242 eta 263 orr. eta lan honetako 2.3. atala). Ikus ditzagun bien arteko
antzekotasunak eta berezitasunak:

*-lako*an atzizkian isildutako izena *uste* da: *-lako ustean*. Hortaz, sakoneko
egituretan, A' eta B' perpausak aurki ditzakegu:

A [*Etorri direlakoan*] = A' [*Etorri direlako ustean*]

B [*Ustez eta etorri direla*] = B' [*Etorri direla ustez*]

Ezberdintasuna honetan datza, gure ustez:

A'n «*etorri direlako*» perpausak «*uste*» izenaren izenlagun bezala funtzio-
natzen du, «-ko» atzizkiak «*etorri direla*» konpletiboak inesiboan dagoen ize-
nari lotzeko balio duelarik. Azaleko egiturak, A perpausaren, alegia, «*uste*»
izena isildu egiten da ⁴⁴.

B' perpausaren, «*etorri direla*» konpletiboak konpletibo izaten segitzen du,
ez baita «-ko», ez bestelako atzizkirik, erabiltzen eta «*uste*» instrumentalaz
deklinatzen da; gero, azaleko egiturak, «*ustez*» perpausaren hasierara eramaten
da, hots, aurreratu egiten da.

Beraz, sakoneko egiturari begira, A'-k eta B'-k zentzu berbera dutela esan
dezakegu, eta azaleko egiturako A onartzen bada iritzizko kausazko perpaus
bezala, gauza bera egin beharko genuke B perpausari dagokionez. Mane-
zaundik bost kasutan erabiltzen du *-lako ustean* azaleko egiturak (*-lako*an,
2.2.3. atalean ikusi bezala, behin):

42. AZKUE, *op. cit.*, 361.

43. AGIRRE BEREZIBAR, *Op. cit.*, 1015-1016.

44. IKUS GOENAGA, Patxi, *Op. cit.*, 272-273 orr.

(66) *Oraiko lantto huntan nahi dut jarraiki gauza beraz, irakurleek onhartuko dutelako ustean.* (KL, 147)

(67) *Frango tokitan hitz arrotzaz ibiltzen dituzte, eskuarazkorik ez direlako ustean.* (KL, 294)

(68) *Eskeintza hau egiten dut ezagutzen ez dutelako ustean.* (KL, 349)

(69) *Hortakotz irakurle maitiak, zien barkhamendua eskatuz abiatzen niz aintzina, etziztela sobera enheatuko ustean.* (KL, 221)

(70) *Hartu zuten auto bat eta bazkal ondoan, trenpe ederrenian badoatzi alegera eta lorios Iruñeko besta ederretarat, egundaino bezala ez diren yostatze-ko ustean.* (KL, 337)

Azkeneko bi perpausetan, ezezkoak izanik, nahasketa egin du idazleak eta «ustean» aditz laguntzailearen ondoren erabili orde, gertakizuneko aspektua daukan aditz nagusiaren jarraian kokatu du, batean, eta «-ko» atzizkiaz bukatutako aditz izenaren ondoren, bestean.

Bestalde, «*ustez eta*» horren kokapenari dagokionez, badakigu bestelako menderagailuak ere aurrizkiak izan daitezkeela (*nahiz eta* kontsesiboa, kasu). Arejitak honela dio bere gramatikan menpeko perpausari buruz:

«*Ezaugarri* edo *morfema* batzuen bidez aitzen emoten dau euskerak esaldien menpekotasun hau: geienetan aditzari loturik dagozan *atzizkien* bidez; batzuetan *aurrizkien* bidez ere bai. (...)

NAIZ ETA luzaro zain egon bear, azkenean ere lortu genduan»⁴⁵.

Egia da, dena den, *ustez* honen kategoria «izena» kategoriari lotuago agertzen zaigula, baina balio gerundiala izatera ere lerratzen da.

(71) *Heien arhetik xutitu zen gizon kankail bat, basoa eskian, gaineraino bethia, eta hurbiltzen da Erramun-i hurrats makhurrekin, ustez eta hura zela partidaren irabazlia.* (KL, 73)

(72) *Orai hogoi urthe balaute Iruñen ikhusiko ginuela hiru eskola eskualdun, berrehun haur ikhasleekin, ezpaineko xokotik irriño maltzur bat ageriko zaukun gehiener, eta trufatuko ginen, ustez eta tetelekeria bat entzuten ginuela.* (FLV, 352)

2.5.2. *Ustez (eta) ... -n*

Aurreko atalean esandakoak balio du, gure *ustez*, honetarako ere, nahiz eta atzizkia ezberdina izan.

(73) *Ohar huni ihardesteko luzexko beharginezake mintzatu; bainan erran dezagun laburzki, latin, frantses eta espainiako mintzaira erdareri, arras lothuak eta atxikiak zirela denbora betan ustez eta pollitagoak ziren hitz arrotz horiek.* (KL, 273)

(74) *Ba eta anitzek uste dute beren idaztien agerrarazteko behar dituztela aphaillduraz eta edergailuz bethetu, ustez eta hola ederragokoak izain diren.* (KL, 287)

2.5.3. *Ustez (eta) ... -netz*

Nahiko berezia da ... *-netz* menderagailuaren erabilera hemen, *ustez eta*-ren menpean: berez, *-netz* atzizki konpletibotzat («jakin» edo «esan» aditzen menpean erabilia) jotzen da, zeharkako galdera adierazten duena, bere esanahia *-en ala* ez disjuntiboarena litzatekeelarik. Lafittek, honela azaltzen du:

45. AREJITA, *Op. cit.*, 59-60.

«755. *Surdéclinaison complétive* .- Deux cas du conjonctif décliné lui donnent une valeur de proposition complétive:

a) le *médiatif indéfini* en *ez* ou *etz* correspond au *si* de l'interrogation indirecte:

Ex.: *ez nakien haizu zenetz, je ne savais pas si c'était permis*»⁴⁶.

(75) *Herriak eta herrixkak etzuketen gordeko eskuara, ustez eta artzainen elea bakarrik denetz, eta guri yarraikiko ziren.* (KL, 276)

(76) *Luzaideko Eskualduna-ren berrikaria khexu zen ustez herriak saldu dituen phago zuhaitzak mendi osoa buluziko zituenetz eta bere ondorio gaitzez euri haundiek bidea haizu dutelarik, trabarik gabe mendi behera kurritzeko.* (KL, 404)

2.6. Lokailuak

2.6.1. Zeren (eta)

Villasantek juntagailu koordinatuen artean sailkatzen du bai *zeren (eta)* bai *ezen* partikula⁴⁷, eta kausa logikoa adierazten dutela dio. Gu, Euskaltzaindiak proposatutakoari jarraituko gatzazkio, hau da, *zeren (eta)* nahiz *ezen* lokailutzat joko ditugu (Ikus 1 oharra).

(77) *Detxepare (edo berak eskualdunki erraiten duen bezala Etxeparekoak) ageri da Doniane Garaziko khasik auzokoa dela, zeren eta bere phertsuetan ibiltzen du, ez dizit, artu nizin, ez dut, artu nien, orde.* (KL, 106).

(78) *Izen horrekin ezagutzen den gerthakari haundi hartaz nahi ditut erran zorbait hitz bilduma labur bathian. Eta nik emain ditutan berriak lekhuko batenak dira, zeren eta zorionez, ene begiez ikhusi nuen Nafarroako abertzaletasunaren inharroste suhar hura, gogotik sekhula itzaltzen abal den oritzapena.* (KL, 163)

(79) *Bainan badakigu gure hitzak izpirik bihotzetarat heldu gabe haize zirimolak ostoz xumeak barreatzen eta eremaiten dituen bezala, halatsu yuain dirrela, zeren eta ihiztaria nihondik ez da kordokatuko bere yosteta lehiatsu eta latz hortarik.* (KL, 189)

(80) *Teillatuak xut-xutak dira, elhurrak yautsarazteko, zeren eta hango elhurteak noiz-nahi negu borthitzetan zortzi zehe loditasunekoak egiten ditu.* (KL, 209)

(81) *Doi bat eskolatuak giren eskualdunek behar ginezake asmatu zer ikhusbide eta ondorio ederrak eman dezazkeen yaun edo señorito baten mintzazteak kartsuki eta suharki yende xeheen artean, gure mintzai ederrean, zeren eta hek ikhustean yaunek gohoratzen eta onhesten dutela, asmatzen dute aldiz ez ditakela hain gutiestekoa nola sobera ardura aditzen duten bezala zorbait yendexkilen artean.* (KL, 276)

(82) *Eskualdun guzien hobena izan da, zeren eta Eskual-herrian bethidanik ez dugu den gutieneko axolarik izan gure mintzaiaren altxatzeaz eta goresteaz.* (KL, 294)

(83) *Lana goiz-goizik hasirik, bazkal aintzineko urhentzen eta bukatzen dute, othordu berant eginikan ere, zeren eta atsaldeko ez dute sekula utzi nahi*

46. LAFITTE, *Op. cit.*, 399.

47. IKUS *La oración causal en vasco, op. cit.*, eta idazle beraren «Las oraciones causales en Axular (y IV)», *Fontes Linguae Vasconum*, 40 zenb., 1982, 359-385 (Ondorioak, 384-385 orrialdeetan). Ikus, bestalde, ALTUNA, PATXI: *Op. cit.*, 499-522).

lan hori, eta inahala, bururik altxatu gabe ari dira lanhari lotuak goiz guzia, lehiatsuki. (KL, 334-335)

(84) *Eskualdun berri guziek behar luteke urthe baxhotx egon aldi bat egin herri eskualdun huts bathian, zeren eta liburuetan ikhasten dena ezta aski gure mintzaiaren zoko mokho guzien zagutzeko, eta guziz hi-ka edo toka mintzatzeko, hortan baita gure elhearen gatz eta edertasun guzia, eta gero aintzez bertzelakoa edo desberdina delakotz.* (KL, 388)

(85) *Larramendik Mendibururi bidaldu edo igorri zakon kartan, Jesusen biotzaren debozioan agertua aintzinsolas gisan (prefacio), erraiten zakon: «ongi egin dezu Nafarroako hitzen batzuen ekartzea, egokiak diranean, eta besterik ezteanean; zeren lenbizian, ta batbatean aditzen ezpadira aurki (gero) adituko dira, ta geienak, dagoaneko aditzen ere badira, ta ala Euskera bide batez edertzen ta ugaritzen da.* (FLV, 351)

2.6.2. Ezen

VILLASANTE/LASARTE: «Konjuntzio honek betekizun bat baino gehiago du, noski. (...) Gure autoreak [Lapeyrek] maiz eta arrunt erabiltzen du ezen perpaus kausalak sortzeko; eta beti kausal koordinatuak dira. Aditza beti gelditzen da bere hartan, hots, aurizki ez atzizkirik gabe. Ezen hau esaldiaren hasieran dator, gainera. Gaztelaniaz “porque” edo “pues” itzul daiteke»⁴⁸.

(86) *Baditeke laborari, guk ibiltzen duguna, latinezkoa denetz, ezen hala iduri du, bainan guk hitz hori utzizkioz bertze bat ibil ginezake. Lurgintzaria.* (KL, 277)

(87) *Baina oraino harrigarriago dena, irakurle oste haundi hori eskualde tipi hartakoak dira gutiz gehienak, ezen yakina da, Laphurdi, Baxenabarre eta Xubero, Eskualherriko laurden zatia dela, han nunbait.* (KL, 266)

3. BEHE-NAFARRERAZKO ZENBAIT TESTUREN KAUSAZKO PERPAUSAK (BONAPARTE HONDOA)

Zeren eta ... -lakotz lokarriaren erabilera ez ohikoa aztertzea interesatzen zitzaigunez gero, berau erabiltzen den testuetako adibideak jaso ditugu⁴⁹. Hortaz, Aturriko eta Garazi-Amikuzeko azpieuskalkiez egindako itzulpenetatik jasotako perpausak ekarriko ditugu hona, gehienbat, eta, zenbaitetan, osagarri eta argigarri gisa, behe-nafarreraz dauden beste itzulpenetakoak ere bai (32. *Katixima, Baigorriko elheaz.* (Mendebaldeko behe-nafarrerako Baigorriko azpieuskalkia, Baigorriko barietatea⁵⁰) eta

33. *Katixima, Ustaritzeko elheaz.* (Mendebaldeko behe-nafarrerako Lapurdiko azpieuskalkia, Ustaritzeko barietatea⁵¹).

48. Ikus *op. cit.*, 547 orr. Manezaundiren kasuan *bait-* atzizkiarekin batera erabilia ere ikusi dugu, behin bada ere.

49. 53 zenbakiko itzulpena, juntagailu eta lokailuen erabilpen maiztasunari dagokionez, 52 agirikoaren antzekoa da (azpimarratzekoa da 53.ean «*zeren ... -lakotz*» forma agertzen dela, eta 52.ean, aitzitik, ez: pasarte berberetan, 52.ean, «*zeren ... bait*» (*zeñ ezpaiztuzten, zēñ ez baita*) eta «*-lakotz*» (*dauzkalakotz*) erabiltzen ditu).

50. YRIZAR, *Op. cit.*, 218.

51. YRIZAR, *Op. cit.*, 215.

3.1. KAUSAZKO LOKARRIEN ERABILERA MAIZTASUNA:

Maiztasuna, aditz jokaturako perpausetan eta hiru testu-sortatan neurtu dugu, guztiak ekialdeko behe-nafarreraz, Zaraitzukoa izan ezik (mendebaldeko behe-nafarrerazkoak ere aztertu ditugu, esan bezala, baina ez dugu estatistika zehatzik egin eta osagarri gisa ekarriko ditugu hona bertatik hartutako adibideak):

a) *Zeren (eta) ... -laktz* lokarria dakarten katiximetan, alde batetik.

b) *Zeren (eta) ... -laktz* lokarria dakarten bestelako bi testu erlijiosotan, bestaldetik.

c) *Zeren (eta) ... -laktz* lokarria ez dakarten katiximetan, azkenik.

a) **Garaziko-Amikuzeko eta Aturriko hizkeraz, 50, 51, 53 eta 55 agirietan** ⁵²:

50. *Giichtiño - doctrina aita Gaspar Astete Jesuistac Españolez iskiibatia. (...). Bardotzeco hescouaraat buhurtia B. Celhabe notari hangotarrac.* (Ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkia, Bardotzeko barietatea ⁵³).

51. *Girichtino - doctrina edo katichima Aita Gaspar Astete jesuistak (sic) españolez ichkياتia, Donibane Garaziko Heskuarara itzulua.* (Ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkia, Garaziko barietatea ⁵⁴).

53. *La doctrine chrétienne traduite de l'espagnol en basque-bas-navarrais-mixain tel qu'il est parlé à St. Palais, «58 pages»* (Ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkia, Amikuzeko barietatea ⁵⁵).

55. *Guiistino - Doctrina. Itzulua Urketako Erdaralat (sic), Henry Noële, Urketako yaun Errientak. 1869* (Ekialdeko behe-nafarrerako Aturriko azpieuskalkia, Urketako barietatea ⁵⁶).

	50	51	53	55	guztira
<i>zeren...bait-</i>	26	22	29	20	97
<i>-laktz</i>	9	7	8	6	30
<i>zeren ... -n</i>	7	3	5	11	26
<i>zeren</i>	3	3	2	4	12
<i>zeren...-laktz</i>	3	2	2	1	8
<i>bait-</i>	2	-	-	-	2
<i>-lakoan</i>	2	-	-	-	2

52. Lokarriak ondoko orrialdeotan agertzen dira:

Zeren ... bait: 50 agiria: 10, 17, 19, 22, 24, 25, 30, 31, 43, 47, 48, 54, 58, 59, 68, 69, 70, 73; 51 agiria: 3, 8, 9, 11, 12, 15, 16, 27, 28, 32, 34, 40, 42, 43; 53 agiria: 4, 8, 10, 12, 13, 14, 18, 27, 30, 31, 33, 35, 38, 48, 50, 52; 55 agiria: 1, 3, 5, 12, 22, 25, 26, 28, 33, 41, 61. Zeren ... -n: 50: 37, 51, 68, 77-78, 80, 82, 88; 51: 4, 7, 9, 30, 40; 53: 10, 17, 23, 33, 47; 55: 3, 11, 17, 33, 40, 48, 50, 52, 57, 62, 63. Zeren ... -laktz: 50: 24, 64; 51: 21, 37-38; 53: 8, 44; 55: 37-38. -Laktz: 50: 3, 10, 20, 24, 34, 45, 64, 67, 88; 51: 9, 19, 26, 38, 40; 53: 4, 10, 21, 28, 29, 44, 47; 55: 3, 15, 23, 24, 40, 61. Zeren: 50: 10, 16; 51: 4, 7; 53: 4, 8; 55: 5, 28, 35, 42. Bait-: 50: 29, 51. -Lakoan: 50: 34, 45.

53. YRIZAR, *op. cit.*, 219.

54. YRIZAR, *Op. cit.*, 214 eta 219.

55. YRIZAR, *op. cit.* 210. Itzulpen hau ere Cazenaverena dela baieztatu dezakegu, bai idazkeragatik, baita erabilitako perpaus kausalengatik ere.

56. YRIZAR, *Op. cit.*, 211.

b) **Garazi-Amikuzeko hizkeraz** ⁵⁷:

102. *Jonasen liburua Garaziko heskuaran esplikazioneekin emana.* (Ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkia, Garaziko barietatea)

⁵⁸

125. *Jesu Khrichtoïn Ebanjelio Seindia San Mathiuïn aäbera.* (Ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkia, Garaziko barietatea).

	102	125	guztira
<i>ezik</i>	-	81	81
<i>zeren ... bait-</i>	3	48	51
<i>-lakotz</i>	-	21	21
<i>bait-</i>	-	5	5
<i>zeren ...-lakotz</i>	1	2	3
<i>zeren</i>	1	1	2
<i>ezik ... bait-</i>	-	1	1
<i>nola ... bait-</i>	-	1	1
<i>zeren ... -n</i>	1	-	1
<i>-lakoan</i>	-	-	-

c) **Garaziko, Arberoako eta Beskoitzeko hizkeraz** ⁵⁹ :

57. Hurrengo kapitulu, orrialde eta bertikulotan aurki daitezke lokarriak:

Ezik: 125 agiria: I kapitulua: 2-3, 20.b; II: 3, 5.b, 6.b, 4, 13.b, 20.b; III: 6, 2.b, 10.b, 7, 15.b; IV: 7, 6.b, 8, 17.b, 9, 18.b; V: 10, 12.b, 11, 20.b, 12, 29.b, 13, 37.b, 14, 46.b; VI: 15, 8.b, 15, 14.b, 16, 21.b, 24.b, 17, 34.b; VII: 18, 2.b, 8.b, 19, 12.b, 20, 29.b; IX: 5, 16.b, 6, 21.b, 6, 24.b; X: 7, 34.b, 8, 10.b, 9, 17.b, 26.b; XI: 11, 10.b, 12, 13.b, 18.b, 13, 30.b; XII: 14, 8.b., 16, 34.b, 37.b, 40.b, 18, 50.b; XIII: 18, 12.b, 19, 15.b; XIV: 1, 3.b; XV: 4, 2.b, 5, 19.b; XVI: 8, 25.b; XVII: 10, 14.b; XVIII: 13, 10.b, 14, 20.b; XIX: 17, 12.b, 18, 14.b; XX: 21, 16.b; XXI: 3, 26.b, 4, 32.b; XXII: 7, 14.b, 7, 16.b, 30.b, 9, 4.b, 10, 9.b, 13.b, 13, 39.b; XXIV: 13, 7.b, 15, 27.b, 16, 38.b; XXV: 19, 29.b, 20, 35.b, 42.b; XXVI: 1, 8.b, 9.b, 10.b, 3, 28.b, 4, 41.b, 5, 52.b, 7, 73.b; XXVII: 9, 18.b, 9, 19.b, 12, 43.b; XXVIII: 14, 2.b, 15, 5.b, 6.b. *Zeren (eta) ... bait-:* 102 agirian: 4, 8, 9; 125: I: 3, 21.b, 5, 18.b, V: 9-8 (8 aldiz); 10, 12.b, 12, 34.b, 13, 35.b (2 aldiz); VII: 19, 13.b, 20, 25.b; IX: 5, 17.b (2 aldiz), 7, 36.b; XI: 12, 21.b, 13, 26.b; XII: 17, 42.b; XIII: 18, 11.b, 13.b; XIV: 2, 24.b; XV: 5, 23.b, 6, 32.b (2 aldiz); XVI: 7, 3.b, 8, 23.b; XVII: 10, 14.b (2 aldiz); XX: 20, 7.b, XXI: 5, 46.b; XXIII: 10, 8.b (2 aldiz), 10.b, 13.b, 14.b, 11, 25.b (2 aldiz), 11, 27.b; XXIV: 13, 5.b, 14, 24.b, 16, 42.b, 44.b, XXV: 18, 8.b, XXVII: 8, 6.b. *-Lakotz: 125 agirian:* II: 4, 12.b; IX: 5, 8.b; X: 11, 42.b; XI: 12, 20.b; XII: 16, 41.b, 14, 15.b; XIII: 18, 5.b, 6.b, 19, 16.b; XIV: 1, 4.b, 5.b, 9.b; XVI: 7, 8.b (2 aldiz), 8, 17.b; XVIII: 16, 32.b; XIX: 18, 22.b; XX: 21, 15.b; XXIV: 14, 12.b; XXV: 18, 13.b; XXVI: 1, 10.b.

Bait-: 125: XII: 13, 1.b (hau erlatibozkotzat jo liteke); XIII: 19, 16.b; XX: 22, 30.b; XXIV: 16, 39.b; XXV: 19, 23.b. *Zeren ... -lakotz:* 102: 7; 125: V: 13, 35.b; XI: 13, 25.b. *Zeren:* 102: 3; 125: XI: 12-13, 23.b. *Ezik ... bait-:* 125: XII: 18, 50.b. *Nola ... bait:* 125: I: 2, 19.b. *Zeren ...-n:* 102: 9.

58. Testu hau ez dago osorik, 11. orrialdetik bukaerainokoa falta delarik. Testua begirunezko tratamenduan dago, «zuka», alegia; izenpetu gabea bada ere, letramoldeagatik argi dago Cazenaverena dela. Eskuizkribu honetan ez du «*ikurrik*» erabiltzen [b], [d], [g] leherkari ahostunen eta [r] dardarkari simplearen galera irudikatzen (guk, "zeinuaz). Badago, bestalde, L.L. Bonapartek argitaraturiko bertsiota, Cazenavek ere egina: «La prophétie de Jonas traduite en dialecte basque de la Basse Navarre, tel qu'il est communément parlé dans la vallée de Cize par M. L'Abbé Casenave, Londres, 1862», in BONAPARTE, Louis Lucien [1813-1891], *Opera Omnia Vasconice*, Bilbao, Euskaltzaindia, 1991.(4 liburuki), II. liburukia, 13-16 orr. Bertsiot honetan «*ikurra*» erabiltzen du ahoko mintzairan gorago aipaturiko fonemen galerearen berri emateko xedez eta edukina ere bestela idatzia dago.

59. Lokarriak ondoko orrialdeotan daude:

52. *Doctrina cristiana en bascuence, dialecto vulgar de San Juan de Pie de Puerto (Bas-navarrais-cizain)*, 60 pg. ⁶⁰. (Ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkia, Garaziko bariedadea ⁶¹).

54. *La doctrine chrétienne traduite de l'espagnol en basque bas-navarrais-arberouen, tel qu'il est parlé à St. Martin d'Arberoue, «29 pages»* ⁶². (Ekialdeko behe-nafarrerako Garazi-Amikuzeko azpieuskalkia, Arberoako bariedadea ⁶³).

56. *Beskoitzekoa, B. Mendiboure erretorak egina*. (Ekialdeko behe-nafarrerako Aturriko azpieuskalkia, Beskoitzeko bariedadea ⁶⁴).

	52	54	56	guztira
zeren ... bait-	16	25	20	61
lakotz-	13	17	6	36
zeren ... -n	1	3	5	9
bait-	5	1	2	8
zeren	1	2	-	3
ezik	1	-	1	2
zeren ...-lakotz	-	-	-	-

Katiximetan erabilienak, beraz, hurrenez hurren:

. *Zeren (eta) ... bait-, -lakotz, zeren (eta) ... -n, bait-, zeren (eta) ... -lakotz, zeren.*

Ezik lokailua «Ebanjelioa»-ri dagokion testuan erabiltzen da, bereziki, hau da, elizkizunetan irakurtzeko idazki literario batean. Hortaz, eta soilik katiximak kontutan harturik, *zeren (eta) ... bait* eta *-lakotz* agertzen zaizkigu, alde haundiz, erabilienetakoak bezala. Ez dugu aintzat hartu aditz jokatu ga-beekin batera erabilitako atzizkirik (*-t(z)egatik, -(r)ik*), baina honelakoak ere erabiltzen dira, batez ere lehenengoa (bigarrena, «zu ofentsaturik» esapidetan).

3.2. BEHE-NAFARRERAZ ITZULITAKO KAUSAZKO PERPAUS ZEN-BAIT

Testuetatik jasotako zenbait perpaus emanen ditugu, gehiegi ez luzatzearen, Manezaundirenak sailkatu ditugun hurrenkera berean:

Zeren ... bait-: 52: 4, 6, 7, 8, 10, 11, 12, 13, 14, 20, 26, 31, 34, 35, 39, 42, 44, 47, 50, 52, 54, 59; 54: 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 13, 15, 17, 18, 20, 22, 25, 26, 28; 56: 3, 5, 6, 8, 11, 18, 21, 22, 25, 33, 34, 35. *-Lakotz*: 52: 4, 6, 10, 14, 20, 24, 32, 33, 37-38, 47, 49; 54: 2, 4, 5, 10, 13, 19-20, 22, 23; 56: 5, 13, 19, 20, 28, 32. *Zeren ... -n*: 52: 4; 54: 5, 17, 24; 56: 5, 23, 28, 32, 39. *Bait-*: 52: 14, 15, 19, 49, 35; 54: 8; 56: 11, 30. *Zeren*: 52: 4; 54: 2, 4. *Ezik*: 52: 37-38; 56: 23.

60. (Zuka eta xukako adizki formak agertzen dira eta [b], [d], [g] eta [r] fonemen galera, (guk "zeinuaz irudikatua). Hau ere, letra moldeagatik, Cazenavek eginikoa dela esan dezakegu, 51. eskuizkribuaren aldakia).

61. YRIZAR, *Op. cit.*, 214 eta 219.

62. Itzulpen hau, letra-moldearen arabera, Cazenavek ere egindakoa dela esan daiteke.

63. YRIZAR, *Op. cit.*, 210.

64. YRIZAR, *Op. cit.*, 210.

3.2.1. Bait- aurrizkia

(88) *G. Kreduaz eta fedezko artikuliez landa, sinhetsten duzia «uchia» beste zombait gauza? I. Hori ez eni galdein, jakitateik gabe bainiz.* (52, Bonaparte, 19)

(89) *Bainan uroştzu zien begiak ikhusten dutelakotz eta zien beharriak entzuten baitute.* (125, Bonaparte, XIII, 19, B.16⁶⁵)

3.2.2. -lakotz atzizkia

(90) *I. Deitzen'tzu kapitalak, hotaik sortzen diren biziuen buriak direlakotz, ithurriak eta erruak bezala;(...)* (52, Bonaparte, 37-38)

(91) *G. Zombait naturaleza ditu Jesu-Khrichtok? I. Batzi biga; Jinkuaina eta gizonaina; batzi ere bi adimendu eta bi boöndate: Presuna bat Jinko bezala, eta memoria bat gizon bezala, zeën ez baita khausitzen Khristo baithan presuna humanoik, eta Jinko bezala gauza guziak dauzkalakotz goguan: aita bat bai-zi Jinko bezala, zoina baita Aita Eternala; eta ama bat, gizon bezala, hura baita Andardana Maria, eztielakotz Aitaik gizon bezala eta Amaik Jinko bezala.* (52, Bonaparte, 47)

(92) *Bainan lo zaudelaik abertitiak izan zielakotz gehio' etziten itzul Herodesenganat beste bide bat-tetaik beën alderditaät juan izan zitzun.* (125, Bonaparte, 4, B. 12)

3.2.3. Lokailua ... Aurrizkia: Zeren (eta) ... bait-

(93) *G. Zombait naturaleza ditu Jesu-Khrichtok?*

I. Batzi biga; Jinkuaina eta gizonaina; batzi ere bi adimendu eta bi boöndate: Presuna bat Jinko bezala, eta memoria bat gizon bezala, zeën ez baita khausitzen Khristo baithan presuna humanoik, eta Jinko bezala gauza guziak dauzkalakotz goguan: aita bat bai-zi Jinko bezala, zoina baita Aita Eternala; eta ama bat, gizon bezala, hura baita Andardana Maria, eztielakotz Aitaik gizon bezala eta Amaik Jinko bezala. (52, Bonaparte, 47)

(94) *Oihu ein zizien beaz Jaunai eta erran ziakozien: othoizten zituu, Jauna, gizon hunen heriotzia ez dain izan gu hilaazteko sujeta, eta ez dain ichur gure gaineat odol inozenta zeen, Jauna, zuk nahi uzun bezala ein baita gauza hau.(...).* (102, Bonaparte, 4)

(95) *Ez tuzu ere zin inen zeure buriaz, zeën ez paituzu bilho bat bera churiazten edo belchaätzen ahal.* (125, Bonaparte, V, 13, B. 35)

3.2.4. Lokailua ... Atzizkia

3.2.4.1. Zeren (eta) ... -lakotz

Gorago esan dugunez, gutxitan bada ere, honelako lokarria ere erabiltzen dute itzultzaileek Aturriko eta Garazi-Amikuzeko euskalkiez idatziriko testu batzuetan. Ez genezake esan, aitzitik, bakarrik menpeko perpausa luze samarra denean erabiltzen dutela honelakorik, hots, lokailua, nolabait, menpekoaren iragartzeko, adibideetako ezezko perpausetan ikusten den bezala: «zeën ez delakotz kausitzen Christo baithan presuna humanoik»⁶⁶, «zeën etzuztelakotz

65. 125 agiriko B. honek «bertsikuloa» esan nahi du.

66. Perpaus hau bai 51. bai 53. agirian agertzen da, katiximako testu berbera itzultzeko. *Zeren (eta) ... -lako* arrotza egin izan balitzaio, gure ustez, itzultzaileak ez zukeen behin baino gehiagotan era-

beiratu». Kasu hauetan, perpausa ezezko izateak honelako osagarri ordena eragiten duela argi dago. Baiezkoetan ere ez daude elkarrengandik hain urrun lokailua eta menderagailua. Honek, nolabait, ekialdeko behe-nafarrerari dagokionez, Villasantek ateratako ondorioak zalantzan jartzera garamatza: «En oraciones cortas y de factura simple *-lako* está en su sitio y parece preferible. Pero en los períodos largos o complicados puede interesar colocar en el comienzo de la frase la partícula que anuncia la causal y que tal vez se halla relativamente distante del verbo que lleva *bait-*. Con *-lako*, en cambio, no se usa anafórico alguno que lo anuncie»⁶⁷.

Zeren (eta)... -laketz partikulari dagokionez, guk azterturiko agirietan, bai Cazenavek egindakoetan, baita bestek buruturikoetan ere⁶⁸, honelako banaketa hauteman dugu:

EKIALDEKO BEHE-NAFARRERA

Zaraitzukoa: 12 (-), 13 (-)⁶⁹

Garazi-Amikuzekoa

a) Garazikoa: 51 (+), 52 (-), 102 (+), 125 (+)

b) Amikuzekoa

Donapaleu: 53 (+)

...

c) Bardozekoa: 50 (+)

d) Arberoakoa: 54 (-)

Aturrikoa

a) Beskoitzekoa: 56 (-)

b) Urketakoa: 55 (+)

MENDEBALDEKO BEHE-NAFARRERA

Lapurdikoa

a) Lekornekoa (?)

b) Ustaritzekoa: 33 (-)

Baigorrikoa

Baigorri: 32 (-)

...

Aezkoakoa⁷⁰: 36 (-), 37 (-)⁷¹

biliko, gauza bera itzultzeko, gainera; pentsatzekoa da, beraz, testu erlijiosoetan, bederen, usu erabilitako lokarria zela. 50. agirian ere, hots, Bardotzeko mintzairaz, pasarte berberetan agertzen zaigu.

67. *La oración causal en vasco ...*, 241-242.

68. Aipatutakoez landa gainbegiratu ditugun katiximak, ondoko azpieuskalkiez idatzirikoak dira: Ekialdeko behe-nafarrerako Zaraitzukoa (Oronz herrikoa, Bonaparte hondoko 13 agirikoa, 1857.ean egina) eta mendebaldeko BN-ko Aezkoakoa (Garraldakoa, 37 agirikoa).

69. 12. agiria: *Doctrina Usaraz Dn Benito Gil (sic) escrituric vere governuaren daco. Yzallen Avenduaren amalaugarreanean, urte mila zazpitan eun eta ogei eta zazpitan*. 13. agiria: *Oronz (Val de Salazar), le 6 novembre de 1857*. Agiri hauetan «*ceren ... bait*», «*cerengatic ... bait*» dira nagusi.

70. Iñaki Caminok egindako ikerketaren arabera, «Aezkera: dialektologi azterketa» izenburuko doktorego tesi moduan Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean 1996ko martxoaren 4an aurkezturik, aezkera, behe-nafarrarekiko lotura ukaezina badu ere, goi-nafarrera da.

71. 36. agiria: *Dialecto aezcoano*. 37. agiria: *Catecismo en bascuence, dialecto vulgar de Garralda por don Javier Loperena, párroco de dicha villa*. Azkeneko hau ez dago osorik («Ceregatic vada erraten dugu lenic, aita gurea» esaldiraino dago). Katixima hauetan ere «*Ceren ... bait*», «*cerengatic ... bait*», «*ceregatic ... bait*» dira nagusi.

Beraz, salbuespenak salbuespen (Garaziko 52 agiria, Arberoako 54.a eta Beskoitzeko 56.a), Garazi-Amikuzeko eta Aturriko azpieuskalkiez osaturiko agirietako erabilpentzat jo daitekeela uste dugu, oso murrizta izanikan ere, hau da, Iparraldeko eremuko Ekialdeko Behe-Nafarreraz egindako katixime-tako eta Ebanjelietako egituratzat. Soilik azterturiko testu erlijioso idatzietan oinarriturik, ordea, ezin esan ahozko mintzairan ere hedaturikoa ote zen, ala bakarrik idatzizko erabilerari ote zegokion, *zeren (eta)... bait-* menderagai-luaren analogiaz sortuta, lokarri erromanikoen antzera.

(96) «*Inkarnazioneco Misterioua. (...) G. Zoumbat natualeza tu (die)*

Jesukristo goue Yaounac ? (Yaouna beithan)

I. Baitzi bi naturaleza: Yincouaena eta gizouaena; batitzi ere bi arrazouña-mendu (adimendu) eta bi boondate; Presouna bat, Yinco

bezala; eta memoria (orhitzapen) bat guizoun bezala, ceen eztelacotz

kaousitzen YesuKristo beithan Presouna umanoic (giza-gizounic) eta Yinco

bezala gaouza guziac (oro) gogouen dazkalakotz: : Aita bat Yinco

bezala, zouin ere beita aita eternala; eta ama bat, gizoun bezala, houra bei-

ta Andredena (anderdena) Mariac, eztielacotz aitaic

gizoun bezala ez eta amaic Yinco bezala» (50, Bonaparte, 64) ⁷².

Zeren ... bait- nahiz zeren ... -lakotz proposatzen dituelarik:

(97) «*G. Noula da creazalia? creazale?*

A. Zeen ezyeouseitaic ein beitzitien (zitielacotz)

dien gauzac oro» (50, Bonaparte, 22)

(98) *G. Eta bekhatu dea kreaturengatik juramentu itia banoki?*

I. Bai, Jauna, zeën hetan kreazaliari juramentu egiten zakolaketz. (51, Bonaparte, 21)

(99) *Inkarnazioneko michteriua.(...) G. Zombat naturaleza ditu Jesu Khristok? I. Batzi bi Natureleza: Jinkuaina eta gizonaina: batzi ere bi adimendu eta bi borondate: presuna bat Jinko bezala; eta memoria bat gizon bezala, zeën ez delaketz kausitzen Christo baithan presuna humanoik, eta Jinko bezala gauza guziak dauzkalaketz goguan: Aita bat Jinko bezala zoin baita Aita eternala: eta Ama bat, gizon bezala, hura baita Anderdena Maria, ez dielaketz aitaik gizon bezala eta amaik Jinko bezala. (51, Bonaparte, 37-38)*

(100) *Zazpigarrena: Sinhetstia jinen dela bizien eta hilen juyatzeä: huner emaiteko loria, zeën zuzten beiratu haïn manamendu Seindiak; eta gachtuer sekulako pena, zeën etzuztelaketz beiratu ⁷³. (53, Bonaparte, 7-8)*

(101) *G. Zombat naturalezatü Jesu Khristok?*

I. Batizi bi naturaleza: Jinkoaina eta gizonaina: batizi ere bi adimendu eta bi boöndate: Presuna bat Jinko bezala, eta memoria bat gizon bezala, zeën ezte-laketz kausitzen Khristo beithan presuna humanoik, eta Jinko bezala gauza guziak ditielaketz goguan ⁷⁴: Aita bat Jinko bezala, zoin beita Aita Eternala; eta

72. Ikus daitekeenez, B. Celhabe notariak itzulpen osoan zehar aukera bat baino gehiago eskaintzeko erabakia hartu zuen.

73. Ustaritzeko bertsioan, beste apaiz batek egina (ikus Bonaparte saileko 33. agiria, Nafarroako Artxiboan), honela daude: (...) *zeen* beiratu zituzten (...) *zeen etzitzuzten* beiratu. (Ustaritzeko honetan ez da behin ere *zeren ... -lakotz* motako formarik agertzen: *zeen ... bait-* da nagusi. Askotzaz ere gutxiagotan *zeen ... -n* (bostetan edo) eta *-lakotz*.)

74. «ou» grafia erabiltzen du testu honetan [u] fonema emateko. Baigorriko bertsioan (32. agiria, Bonaparteren sailean: *Baïgorry - Catéchisme - Basque parlé de Baïgorry*) honelaxe dago erantzuna: «Bai-

Ama bat, gizon bezala, houra beita Andardana Maria, eztielakotz aitaik gizon bezala, eta amaik Jinko bezala. (53, Bonaparte, 44)

(102) *Bigarren aldiko Jonas igorria- uzu Ninibatarrer ertea been hiria destruitia izain dela; bainan Jinkuak barkatzen diezu zeen kombertituik penitentiazko markak eman tuztelakotz.* (102, Bonaparte, III, 7)

(103) *Ez lurraz, zeën eta hain zango pekua baita; ez Jerusalemez, zeën Errege handiain hiria delakotz.* (125, Bonaparte, V, 13, B. 35)

(104) *Ordian Jesusek mintzo zelaik erran ziin: glorifikatzen zitut, Aita, zeriain eta lurraïn Jauna, zeën eta gauza hok gordetzulakotz chuhurrer eta prudenter, eta eäkatsi ttipier.*

(125, Bonaparte, X, 13, B. 25)

3.2.4.2. Zeren (eta) ... -n

Villasanteren ustez, lokarri hau, ekialdeko euskalkietan, kausa subjetoa adierazteko erabili da, kausa objetibotik bereiztuz⁷⁵. Altunak ere honela azaltzen du: «(...) Etxepareren bertsoa gatzela, “Ceren duten ofenditu...” delako hori “Beqhatoren contra” izateko “orduyan mundu gucia”-k izango, aipatuko, alegatuko duen arrazoia da, arrazoi subjetoa -subjetoak ez du esan nahi, noski, gezurrezkoa denik-, eta horregatik darama, ene ustez, -en atzizkia. Gaztelaniaz, nik dakidala, ezin eman daiteke ñabardura hau aditzera, “...porque, DICEN...” edo honelatsu ez izanik. Guk komunzki ñabardura hori bera omen ipiniaz adierazi ohi dugu eta inork proba egin nahi badu, ohartuko da irakurri ditudan pasarte guztietan omen ongi datorrela. Ikus Etxeparerenean, esate baterako: “Beqhatoren contra date orduyan mundu gueia/Ceren omen duten ofenditu...”⁷⁶. Manezaundik, ikusi dugun bezala, ez du behin ere honelakorik erabili. Bardotzeko bariatatean, B. Celhabe notariak eginikoan, honelakoa aurki daiteke, *zeren...-n* eta *zeren...bait-* baliakidetzat emanda bezala: (105) *“Bai, yaouna, zeren hetan arnegu (yuamentu)*

eiten zakon (beitzako) Creazaliari. (50, Bonaparte, 37 orr.)

(106) *I. Adoätzen zitugu, Khrichto, eta beneikatzen, zeën zure Khuütze Seindiaz erosi üzun mundia.* (51, Bonaparte, 9)

(107) *I. Adoätzen zituü, Khristo, eta benedikatzen, zeën zoure Khurutze Seindiaz erosi duzun mundia.* (53, Bonaparte, 10)

(108) *G. Zergatik deithzentzu kapitalak? I. Deithatzen dituzu kapitalak, zeren diren hotaik sortzen biziuen buriak, ithurriak eta erruak bezala(...).* (51, Bonaparte, 30)

(109) *G. Zer da kontrizionia? I. Duzu damu eta urriki surnatural edo zerutikako bat Jinkua ofentsatuik, zeën den guziz huna.* (52, Bonaparte, 49)

tu bi naturaleza: Yincoaina eta gizonaina, baiture bi adimendu eta bi boondate: Presunät yinco beçala eta memoriaot gizon beçala *ceen eta ez baita* kausitcen Christo aithan presuna gizonzeçcoic eta yinco beçala gauza guciac baitauzka gogoan: aita bat yinco bezala ceina baita aita eternala; eta ama bat, gizon beçala, ceina baita Andredena Maria ez *dilacotz* aitaic gizon bezala eta Amaic Yinco bezala» (19.orr.). Bertsiu honetan ere *ceen ... bait-* gertatzen da nagusi, gutxiagotan *ceen ... -n* eta *-lakotz* erabiltzen direlarik.

75. «(...) como los dialectos orientales disponen tanto de *bait-* como de *-n*, en éstos se ha desarrollado también un uso de *zeren* más *-n*, pero especializado para la expresión de la llamada causalidad subjetiva», Villasante, *La oración causal en vasco ...*, 242-243.

76. ALTUNA, *Op. cit.*, 510.

(110) *G. Zer da kontrizionia? I. Duzu damu eta arragret surnatural edo zelutikako bat Jinkoua ofentsatuik, zeën den arras huna eta maithagarria, koësatzeko eta gehiö bekhatuik ez egiteko deliberu fermu batekin.* (53, Bonaparte, 47)

3.2.5. Lokailua

3.2.5.1. Zeren

Honen barnean aditza iraganean daukatenak sartu ditugu, ez dagoelako jakiterik *-n* atzizkia daramatenentz.

(111) *Fedezko artikuliak (...) Zazpigarrena: sinetstia jinen dela bizien eta hilen juyatzera: huner gloria emaiteko, zeren beiratu zitzuzten haren Manamendu Seindiak; eta gachtuer sekulako pena, zeren etzuzten beiratu.* (51, Bonaparte, 7)

(112) *Kontrizioneko ata, Jesu-Khristo ene Jauna, Jinko eta gizon egiazkua, ene Kreazalia eta Salbazalia, zu zirena ziëlakotz, eta zeën maithatzen zituän gauza guzien gainetik, damu'izit, Jauna, bihotz guziaz, zu ofentsatuik: (...).* (52, Bonaparte, 4)

3.2.5.2. Ezik

(113) (...) *etziezu bethi untsa juaiten mortalak deithtatzia, ezik hanitz aldiz eztitzu benialak bezik.* (52, Bonaparte, 37-38)

(114) (...) *Joseph Dabiden Semia, etzitela lotsa izan Maria zure esposain hartzeko: ezik horren baitan sorthia dena Izpiitu Seindiaïn'nik duzu.* (125, Bonaparte, 2-3, B.20)

4. ONDORIO GISA.

Ustezko kausa adierazten duten *ustez (eta) ... -la (-n, -netz)* eta *-lakoan*, alde batera utzita, maiztasunaren arabera nahiz zentzu hertsienean kausazko lokarritzat jo daitezkeenak kontutan hartuta, eta Manezaundik gehienbat erabilitakoak azterturik, honakook ondoriozta ditzakegu:

4.1. Manezaundiren idazkietan, *bait-* aurrizkia eta *-lakotz* atzizkia nagusitzen dira. Protasian erabiltzen dituenean, *-naz geroz* menderagailuaren balioak direla dirudi eta azalpenezko balioa ere hartzen dute.

Hurrengo atalon arabera neurtu dugu hemen erabileraren maiztasuna: 1) ipuinetako pertsonaien elkarrizketak eta ipuin-kontakizunak; 2) idazlearen gogoeta-iritzia; 3) historia-politikako gertaeren narrazioa eta herri-ohiturak; 4) paisaien deskribapena. Banaketa honek ez du esan nahi idazleak, bere gogoeta-iritzia azaltzen duenean, derrigorrez kausa subjetoa adierazten duenik; batzutan, arrazoi guztiz objektibo eman dezake bere irizpidea frogatzeko; komunikazio motari begira egin dugu, hau da, ahozko mintzaira eta idatzizko hizkuntza erregistroetatik hurbiltzen edo urruntzen den neurrian. Adierazten ditugun perpaus kopurua, idazlearen kausazko guztien azterketari dagokiona da. Ondoko oharretan aipatzen ditugunak, aldiz, lan honetan agertzen direnak dira, adibide gisa ekarriak, eta ikerlanaren luzerarengatik.

Bait-ez eraturiko perpausak ipuinetako pertsonaien elkarrizketetan ⁷⁷, hau da, *ahozko mintzairaren islada izan nahi dutenetan*, eta istorio edo ipui-

77. Ikus 1, 7, 9 perpausak.

nen kontakizunetan ⁷⁸ agertzen zaizkigu (31 aldiz, eta 4 aldiz eskutitzetan). Honelakoetan *-lakotz* ere erabiltzen du kontakizunetan, baina 7 aldiz bakarrik ⁷⁹.

Idazlearen gogoeta-iritzia agertzen zaigunean, gehienetan irakurlearekin hizketan balego bezala eratuak, *bait-* 36 aldiz erabiltzen du eta *-lakotz*, 24 ⁸⁰.

Historia-politikako gertaerak eta herri ohiturak kontatzen dizkigunean: *bait-*, 10 aldiz eta *-lakotz*, 4 ⁸¹.

Paisaien deskribapenak egitean, *bait-* ez du behin ere erabiltzen eta *-lakotz*, 5 aldiz ⁸².

4.2. *Zeren ... bait-*, *zeren ... -lakotz* lokailu + menderagailuen eta *zeren (eta)* lokailu hutsaren erabilerari gagozkiolarik, *nabarmenagoa agertzen zaigu egileak bere gogoeta-iritziak azaltzeko, bere argudioak garatzeko, alegia, edo-ta aintzineko gertaerak nahiz herri-ohiturak adierazteko nahiago izan dituela, elkarrizketa edo ipuin kontakizunetan ez baitu inoiz, edo ia inoiz, erabiltzen.*

Zeren ... -lakotz menderagailuaren kasuan, Manezaundi ez dela ez lehenengo, ez bakarra izan, honelakoa erabiltzen duena esan dezakegu, XIX mendean Garazi-Amikuzeko eta Aturriko behe-nafarreraz egindako zenbait itzulpenetan ere erabili dutela ikusi baitugu. Bestalde, ezin dugu esan lokailua menpeko perpauis luzeak bereziki iragartzeko erabili duenik. Haatik, gehiago dira perpauis laburrak, hemezortzi, hain zuzen ere, luzeak baino ⁸³. Gauza bera antzeman daiteke behe-nafarrerako testuetatik ateratako perpauisetan, gehienak laburrak baitira, eta ezezkoak direnean, lokailua eta menderagailua hurrenez hurren erabili dituzte itzultzaileek (ikus 96, 99, 100 eta 101 perpauisak).

Istorio edo ipuinen kontakizunetan: *zeren eta ... bait-*, behin (45 perpauisa), *zeren eta ... -lakotz*, eta *zeren eta* behin ere ez. Pertsonaien elkarrizketetan ez ditu erabili.

Idazlearen gogoeta-iritziari dagokionez: *zeren ... bait-*, 7 aldiz, *zeren ... -lakotz*, 15 aldiz, *zeren*, 19 ⁸⁴.

Historia-politikako gertaerak eta ohituren deskribapenen kasuan: *zeren eta ... bait-*, 5 aldiz, *zeren eta ... -lakotz*, 6 aldiz eta *zeren*, 8 ⁸⁵.

Paisaien deskribapenari dagokionez, *zeren ... -lakotz* hirutan, eta *zeren*, bitan ⁸⁶.

4.3. Manezaundiren perpauisek adierazten duten kausa motari dagokionez, honelakoa iruditzen zaigu: kausa erreala azaltzen duela, nahiz eta, adierazitako edukinaren arabera, zenbaitetan arrazoi subjetoagoa aurkituko dugun eta beste batzutan zeharo objektiboa, beti ere idazlearen mundu-ikuskeratik emandakoa edota datu objektiboetan oinarritua den kontutan hartuz. Jakina, norberaren ikuspegitik emandako arrazoiek tankera subjetoagoa hartzen dute, errealitateko datu objektiboetan oinarritzen direnek baino, bai-

78. 2, 8, 12 perpauisak, esate baterako.

79. 14, 15, 20, perpauisak.

80. *Bait-*: 3, 4, 10, 11 perpauisak. *-Lakotz*: 16, 17, 21, 22, 23, 26 perpauisak.

81. *Bait-*: 5, 6, perpauisak. *-Lakotz*: 18, 24, 25.

82. *-Lakotz*: 19, perpauisa.

83. Laburrak: 52, 55, 57, 58, 61, 62. Luzeak: 51, 53, 54, 59, 60.

84. *zeren...bait*: 47, eta eskutitz batean 49 perpauisa; *Zeren...-lakotz*: 51, 52, 53, 54, 58, 61, 62; *Zeren*: 77, 81, 82, 84, 85.

85. *Zeren eta ... bait-*: 44, 46, 48; *Zeren eta ... -lakotz*: 56, 60; *Zeren*: 78, 79, 83.

86. *Zeren ... -lakotz*: 55, 57, 59; *zeren*: 80.

na idazleak arras errealtzat jotzen ditu. Itzulpenetan ikusi dugun *zeren ... -n*, esaterako, ez du Manezaundik inoiz ere idazten ⁸⁷. Villasante eta Altunaren ustez, ekialdeko idazleek kausa subjeliboa adierazten dute aurrekoaren bidez ⁸⁸. Aztertu ditugun testu erlijiosoetan, behin *zeren eta ... bait-* formaren baliokidetzat erabili dute *zeren ... -n* eta, gehienetan, ideia berberen itzulpena egiteko erabilia ikusi dugu, itzultzaileak nolabaiteko tradizioari jarraikiko baliatzaizkio legez. Altunaren ustez subjelibitatea adierazten duen *zeren ... -n* lokarria, *omen* partikularen ordezkioa litekeena (ikus 3.2.4.2. atala), ez du sekulan erabili Manezaundik. Testu erlijiosoetatik hartutakoetan, berriz, *zeren ... -n* erabiltzen duten guztietan, *omen* partikulaz ordezkioa genezake atzizkia, Altunaren irizpideari jarraikiz.

Manezaundiri dagokionean, subjelibitate hori zerbaiti buruzko iritzia agertzen duenean ere ikus liteke, baieztapen bat egin ondoren, horren azalpena ematen du-eta; azalpen horrek, derrigorrez, subjeliboa izan behar du, igorlearen munduaren gaineko ikuskeran oinarritzen baita. Esaterako, 47 perpausean, honela dio: *Gure ohidurak, mintzaira eta legeak nahi ditugu erre-piztu, bainan oraiko bizi moldearen heinerat zuzenduak, aitzineko gauza onak ahantzi eta baztertu gabe, zeren eta hek baitira eskualdunaren manua, bere izaiterearen errokoak, ezin kenduak gure menetik, gure baitatik, lokharri azkarrenekin lothuak. Aintzineko ohiturak, hizkuntza eta legeak ez baztertzeko ematen duen arrazoia guztiz lotua dago euskaldunari buruz daukan irudiarekin: hiru herri ezaugarri horiek euskaldunaren izatearen sustriak dira, gure baitatik kendu ezinak litezkeenak, oraiko bizi moldearen arabera errepiztu behar badira ere. 53ean emandako arrazoia ere, nolabait, idazlearen iritzia da, baina oinarri objektiboak ere badauzka (luzaidetarrek, euskalkiagatik, ohiturrengatik ..., iparraldekoekin dituzten loturak ukaezinak dira): *Eta horra zergatik «Manezaundi» izengoitiarekin idazten dituen lerro hauk mintzatzzen den hango eskuaraz, Napartarra izanikan ere... zeren eta gure eskuara, gure dantzak, gure ohidura eta aztura guziak, ba eta odoleko lokharriak ere, mendiz bertze aldekoak direlaketz. Iphar aldekoak girelaketz.**

Subjelibitatea edo objektibitatea, Manezaundiren kasuan, ez dautza bereziki erabilitako lokarri motan, adierazitako edukinean baizik. Ikus dezagun, adibidez, 55 perpausa: *Aurkhintza menditsuek eta euritsuek berekin deramate edertasuna, zeren eta hezea landare guzien hazkurria eta bizigailua delaketz; (...). Aurkhintza menditsu eta euritsuen edertasunaren zergatia hezea izatea arras objektiboa eta ezin ukatuzkoa da. 46ean, azalpen objektiboa ere badela esan daiteke, datu soziolinguistiko batean oinarritua: *Eskualduna zen, zeren eta denbora hartan ez baitzen, zorionez, oraino sartua erdara lekhu horietan. Azkeneko honetan, idazlearen ikuspegia, bere mintzairari buruzkoa, «zorionez» aditzondoak adierazten digu. Aditzondo hori kenduta, zergatizko perpausak hizkuntza ordezkapenari buruzko datua eskainiko liguke, besterik ez.**

87. Iraganean agertzen den perpausean ere, 78ean, alegia, erreal eta objektibotzat ematen du kausazkoan adierazitakoa: «(...) *zeren eta zorionez, ene begiez ikhusi nuen Nafarroako abertzaletasunaren inharroste suhar hura, gogotik sekhula itzaltzen abal den oritzapena*».

88. Ikus VILLASANTE/LASARTE, *Op. cit.*, 553. orrialdeko (22 bis) oharra: «Lafitte jaunari galdetu diogu eta bi erabilera hauen artean (*zeren...bait-; zeren...-n*) esannahiaren aldetik diferentziarik somatzen ote den sortaldeko idazleen usarioan. Baietz esan digu. *Zeren...bait-*ez eraturtako perpausetan kausa erreala adierazten da; *zeren...-n*-ekin, berriz, ustezko kausa (beharbada erreala izango da hau ere, baina subjelibitatearen aldetik hartzen da).-Bereizketa honek balio du agian Axular-en eta aspaldiko idazleen erabilera esplikatzeke. Lapeyterena esplikatzeke, ezetz esango nuke».

Manezaundiren erabilkeran, lokarri mota ezberdinen arteko hautapenak gehiago iduri du estiloari erreparatuz egindakoa dela, izan ere, kausazko perpaus zenbait, batzutan, aurretik esandakoari buruzko azalpen gisa agertzen zaizkigu, zio bat baino gehiago adieraziz, alegia, eta lokarri berberaren errepika saihestu nahian bezala (4, 15, 17 eta 21 perpausetan, esate baterako).

LABURPENA

Kausazko perpausok duten garrantzia kontutan harturik, eta gaur egun arte Enrike Zubiri «Manezaundi» idazlearen mota honetako perpausen erabileraren ikusketa partziala izanda, berauek nola osatzen dituen sakonki aztertzeari ekin diogu ikerlan honetan. Honela, bada, lehendabizi, Manezaundik eraturakoen sailkapena burutu dugu, zein den bakoitzaren erabilpen maiztasuna zehaztu ondoren. Gero idazleak osatutako kausazko perpaus mota guztiak - zentzu hertsianean kausazkotzat hartzen direnak nahiz kausazko balioa eta beste balio baten artekoa dutenak - eskaini ditugu eta, adibide gisa, bere testuetatik hartutako bakar batzuk, mota bakoitzari buruz hizkuntzalariek emandako azalpenekin batera. Azkenik, beste testu batzuetako perpausak ere ekarri ditugu hona, Cazenavek eta beste batzuek XIX. mendearen hondarrean Bonaparterentzat behe-nafarreraz egindako itzulpenetatik hartutakoak, alegia, Manezaundirenekin nolabait erkatu eta bere erabilera zehazteko asmoz.

RESUMEN

Teniendo en cuenta la importancia de las oraciones causales, y dado que, hasta la fecha, el análisis de la forma en que el escritor Enrike Zubiri «Manezaundi» utiliza dicho tipo de oraciones había sido parcial, nos propusimos analizar exhaustivamente en este trabajo cómo las construye el mencionado autor. Después de especificar cuál es la frecuencia de uso de cada tipo, hemos procedido a la clasificación de todos ellos. A continuación, ofrecemos todos las clases de causales que utiliza -tanto las estrictamente consideradas como causales como las que tienen un valor intermedio entre causal y otro de distinta clase-, y, como ejemplo, algunas de las oraciones recogidas de sus textos, junto con las explicaciones y opiniones de diferentes lingüistas sobre cada tipo. Por último, también aportamos oraciones empleadas en las traducciones en bajo-navarro realizadas a finales del siglo XIX por Cazenave y otros traductores, por encargo de Bonaparte, con el propósito de compararlas con las utilizadas por Manezaundi y precisar el uso que éste hace de ellas.

RÉSUMÉ

Etant donnée l'importance des phrases causales, et que jusqu'à ce jour, l'analyse de la forme par laquelle l'écrivain Enrike Zubiri «Manezaundi» emploie ce type de phrase, avait été partielle, nous nous sommes proposés de faire dans ce travail une analyse exhaustive de la forme que cet auteur emploie pour les construire. Après avoir spécifié quelle était la fréquence d'utilisation de chacun de tous les types, nous en avons fait la classification. Nous montrons ensuite toutes les types de phrases causales

qu'il emploie -tant celles strictement considérées causales que celles qui ont à la fois une valeur causale et une autre d'autre type- et, par exemple, quelques autres qui ont été repérées dans ses textes, accompagnées des explications et des opinions de divers linguistes sur chacun des types. Enfin, nous apportons aussi les phrases employées dans les traductions en bas-navarrais réalisées à la fin du XIXème siècle par Cazenave et d'autres traducteurs à la demande de Bonaparte, dans le but de les comparer avec celles qui furent employées par Manezaundi, et préciser comment ce dernier les employait.

ABSTRACT

Taking the importance of causal clauses into account, and given that up until now the analysis of the way in which this type of clause is used by the writer Enrike Zubiri "Manezaundi" has been only partial, in this article we proposed to carry out an exhaustive analysis of how they are constructed by this author. After specifying the frequency with which each type is used, we proceeded to classify them all. We then present all the types of causal clauses used -both those considered to be strictly causal, as well as those with an intermediate value between causal and another different type- and, by way of an example, some of the clauses taken from his texts accompanied by explanations and opinions of different linguists regarding each type are included. Finally, we also present clauses employed in the translations carried out in the Low Navarrese dialect by Cazenave and other translators, at the request of Bonaparte at the end of the 19th century, with the aim of comparing them with those used by Manezaundi, and defining his use of them.